

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Hauteskundeak berriro

IÑAKI ALTUNA > 11

KOADERNOA

Agur Asiron, baina adiorik ez

AMAIA NAUSIA PIMOULIER > 21

2019ko ekainaren 1a | XIII. urtea • 622. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



ABORTUAREKIN OSO ATZERA EGIN NAHI DUTE AEB-ETAN...

...ETA HERRITAR ZEIN ERAKUNDE ASKOK HAURDUNALDIA ETETEKO AUKERAK LEGEZKOA IZATEN JARRAI DEZAN NAHI DUTE. KRISTAU KONTSERBADOREEK DIRU ASKO EMAN DIETE ERREPUBLIKANOEI URTEOTAN, ETA ORAIN AGINDU ZAIENA BETETZEA EXIJITZEN DUTE. > 4 Anna GASSOT | AFP



Abortua berriz legez kanpokoia izatea nahi dute makina bat errepublikanok 04

Huaweidunon komeriak 08

Ikastolen Elkartea eta Galiziako Semente eskolak, bidaide 12

Ikusmira: «Rafi estenamorado con Nafira» 17

Kardena bilduma, XVI. mendeko bordatuak jantzi berrietan 18

E.lkarrizketa: Elene Lizarralde 22

In fraganti: Pontx pailazoa 28

Juantxo Egañaren behatzulotik 31



SINADURAK:

03 Gorka Elejabarrieta:

Deslegitimazioa

10 Saioa Aginako Lamarain:

Nerabeak eta helduak

11 Iñaki Altuna: Hauteskundeak berriro

15 Miren Azkarate Badiola:

Ziburu, euskararen arnagune berri bat

15 Antton Izagirre: Argi luzeak

16 Amaia Ballesteros

20 Arantxa Urbe: Zeren beldur!

21 Amaia Nausia Pimoulier:

Agur Asiron, baina adiorik ez

30 Olatz Arbelaiz eta Elena

Lazkano: Robot-lagunak genero ikuspegitik



{ datorrena } **Gorka Elejabarrieta**

Deslegitimazioa

Nazio Batuen Erakundearen Atxiloketa Arbitrarioaren Lantaldeak Jordi Cuixart, Jordi Sanchez eta Oriol Junquerasen espetxeratzeak gogor salatu eta hiru buruzagi katalanen berehalako askatasuna eskatu du.

Lantaldeak egindako txostenak ez du zalantzarako tarterik uzten eta espainiar Estatuaren politika gogor salatzen du. Ez da aipatu Lantaldeak espainiar Estatua gogor salatzen duen lehen aldia. “The New York Times” egunkariak dioen bezala, erabakiak ez du juridikoki espainiar Estatua ezertara behartzen, baina politikoki gogor kolpatzen du. Zalantzarik ez dut Espainiak ez duela NBEk eskatutakoa beteko eta, horrek, Estatu espainolaren sendotasuna beharrean, bere ahulezia utziko du agerian. Eta nahiz eta erabakia nire ustez garrantzi handikoa izan, oro har oharkabean pasa da, edo hori iruditut zait niri behintzat.

Europar, oro har, gurea bezalako gatazkak erreferendum bidez konpontzen hasi dira. Fenomeno nahiko berria da hori. Bide demokratikoa gailentzen ari da eta hori atzera bueltarik gabeko bidea da. Hau da, estatuak jakin badakite ezin dutela lurralde bat beren mugen baitan indarraren bidez eta lurralde/nazio horretan bizi diren biztanleen gehiengoaren borondatearen kontra atxiki. “Dibortzioa” legezko bilakatzen ari da Europako estatu gehienetan, eta horretarako legeak, prozedurak, zehazten ari dira. Europar Batasuneko estatu kideen erdiek independentzia XX. mendean lortu zuten eta argi dago datozen urteetan estatu berriak jaioko direla. Horrek horrelako prozesuen normalizazioa ekarriko du. Eta normalizazio horren aurrean, espainiar Estatuaren jarrera eta jardun ez demokratikoa gero eta ageriago geratuko dira. Estatuaren deslegitimazioa funtsezkoa da, eta, deslegitimazio hori lortzeko bidean, NBERen adierazpen horren modukoek garrantzi handia daukate.

Ulertzen dut oso zaila dela Estatuak egunero egiten dituen bidegabekeria guztien jarraipena egitea. Bide-

gabekeria horiek guztiek gure sentsibilitatea ere kutsatu egiten dute, ohitu egiten gara bidegabekeriota eta ez gaituzte lehen bezainbeste asaldatzen. Horri buruz asko dakigu Euskal Herrian. Horregatik kanpoko norbaitek gurean gertatu den zerbait ez dela batere justua gogorarazten digunean, maila batean, esnatu ere egiten gaitu. Ez dezagun perspektiba galdu, bataila hau epe luzeko gerra da, ez da egun batetik bestera ez galduko ez irabaziko. Demokratizatuko ez den eta autodeterminazio eskubidea onartuko ez duen Estatu baten menpe gaude, eta horrek gure taktika eta estrategiak guztiz baldintzatzen ditu, baita gure barne zein kanpo politikak ere. Gehiengoaren babes argia eta nazioarteko estatuen aitortza eskuratu behar ditugu, nahitaez, baina baliteke hori ere nahikoa ez izatea. Estatuaren helburua *statu quo*-a mantentzea da, eta jakin badakigu helburu hori lortzea, eta, bereziki, mantentzea, ez zaiola erraza izango. Guk beste bi gauza lortu behar ditugu: Estatuaren deslegitimazio demo-

Europar, oro har, gurea bezalako gatazkak erreferendum bidez konpontzen hasi dira. Fenomeno nahiko berria da hori. Bide demokratikoa gailentzen ari da eta hori atzera bueltarik gabeko bidea da

kratikoa nazioartearen begietara, eta, horrekin batera, gatazkaren konponbidea ekarriko lukeen proposamen demokratiko eta zentzudun bat lau haizeetara zabaltzea.

Orain arte bakoitzak bere jokoa bakarrik jokatu du. Euskaldunok gurea, katalanek beraiena. Ez batzuek ez besteez ez dugu/dute garaipenik lortu. Bide, modu, diferenteak saiatu dira, elkarriketa eta akordioaren bidea, alde bakarrekoa... Borroka tresna oso diferenteak ere erabili dira, baina emaitza beti berdina izan da. Bada partida elkarrekin jokatzeko unea. Madril, Brusela eta nazioartearen aurrean elkarrekin agertzeko momentua. •

AEB

Abortua berriz legez kontrakoa izatea nahi dute makina bat errepublikanok

Nire gorputza, nire erabakia”, irakur zitekeen joan den maiatzaren 19an Montgomery Alabamako hiriburuan egin zen manifestazio batean esku hartzaile batek zeraman txartelean. Manifestariak ez daude ados estatuko legegileek abortuaren inguruan hartu nahi duten bidearekin eta horrelaxe adierazi zuten kalean.

Batzuk “Neskamearen ipuina” izenburuko telesailean (Margaret Atwood idazlearen eleberrian oinarritutakoan) ageri diren uniformeak jantzita zeuden, bertan emakumeak «inkubagailu bizidun» moduan tratatzen baitituzte, kazetariei azaldu zieten. «Ugal-

 **JENDARTEA** / joseangel.oria@gaur8.info

Abortuaren aurkako legeak onartzen ari dira Ameriketako AEBetako Mendebalde Ertaineko eta Hegoaldeko estatu batzuetan. Ordularia atzera eraman nahi dute, 1973ra gutxienez, orduan legeztatu baitzuen Auzitegi Gorenak haurdunaldia etetea. Erabaki hura dute orain jomugan Donald Trumpek eta parlamentari eta agintari askok.

ketako esklabo bihurtu nahi gaituztela adierazi nahi nuen mozerro honekin», esplikatu zuen 40 urteko Amanda izeneko manifestariak. Ondoan zihoanak beix koloreko barruko arropa zeraman jantzita eta biluzik zegoela zirudien. Sabelaldean ugal-sistema baten


ilustrazioa zuen, honako testuarekin: “Inkubagailu bat baino gehiago naiz”. Alabamako Mobile hirian ere egin zen protestaldirik. Genevieve McGinnis manifestariaren iritziz, «abortua legez kontrakoa bihurtzeak ez du bizitarik salbatuko. Nerabe eta

Montgomery hirian egindako manifestazioan, esku hartzaile batzuk telebistak eskainitako telesail bateko protagonistak bezala jantzita.
Julie BENNETT | AFP

emakume askok azkenean beren burua hilko dute, edo umetxoa ez izateko pilula arriskutsuak hartuko dituzte. Abortua legeztatzeak eragiten du haurdunaldiaren etetea segurua izatea eta ahalbidetzen du, gainera, emakumeek beren gorputzen gaineko erabakiak hartzeko aukera izatea. Nire ustez, emakume baten gorputzaren inguruko erabakiak ez lituzkete gizonezkoek hartu behar».

GIZON ZURIEN ERABAKIA

Estatu bereko Birminghamen, berriz, Bernie Sanders senatari demokrata eta AEBetako presidente izateko hautagai demokratikak esku hartu zuen. Mis-souri estatuko Kansas hirian ere egin zuten manifestazio bat, bertako legegileek abortua





erabat debekatzen duen lege proiektu bati oniritzia eman baitiote (bederatzigarren astetik aurrera ezin da inongo kasutan aborturik egin, ezta bortxaketa edo intzestu kasuetan ere). Mike Parson Missouriko gobernadore errepublikanoak agindu zuen proiektuari argi berdea emango ziola eta horrelaxe egin zuen.

Alabamako Senatuak (35 eserleku eta errepublikanoen gehiengo garbia 27rekin) aldeko 25 boto eta aurkako 6 eman zizkion, hilaren 15ean, abortua debekatu nahi duen lege proiektuari. Salbuespen bakarra aurreikusten da: amaren bizitza edo osasuna arrisku larrian dagoenean. Alabamako Behe Ganberak apirilean egin zuen gauza bera.

Aldeko botoak senatari zuriek emandakoak ziren. Guztiak ziren errepublikanoak, jakina. Horiek erabaki dute zer egin emakumeen gorputzare-

kin, manifestari askok era tsuan salatu dutenez.

Kay Ivey gobernadoreari tokatzen zaio erabakia berrestea eta horrela egin zuen egun berean. «Bizitza bakoitza da preziatua, bizitza bakoitza da Jainkoaren opari sakratua», adierazi zuen gobernadoreak testua sinatu ondoren. Aste berean, agintari berak ezetz esan zion heriotza zigorrera zigortutako Michael Brandon

Emakume pobreak izango dira AEBetan onartzen ari diren abortuaren kontrako lege atzerakoien biktimak nagusiak.
Seth HERALD | AFP

Samra 41 urteko presoak eskatutako exekuzio atzerapenari, eta handik ordu batzuetara giltzapetua exekutatu egin zuten. Hemeretzi urte baino ez zituen zigortuak leporatu zitzaion krimena egin zuenean.

24 ASTE BETE ARTE

Alabama estatuko agintari horren «hipokrisia» nabarmendu dute egunotan manifestariak, exekuzioa eta abortuaren

aurkako jarrera maila berean jarrita. Testua sinatu bazuen ere, gobernadoreak berehala erantsi zuen lege berria aplikatzea ezinezko izango dela, «Roe versus Wade» izenez ezaguna den erabaki judiziala hartu baitzuen Auzitegi Gorenak 1973an, eta geroztik abortua legezkoa baita AEBetako 50 estatuetan haurdunaldiak 24 aste bete arte, estatu jakin bateko ordezkariak aurkakoa erabakita ere. Iveyk berak onartu zuen Alabamak onartu duen arauaren helburua 1973ko erabaki hura bertan behera uztea dela.


Alabamak hartu duen bide bera hartu nahi dute Missourik, Kentuckyk, Mississippik, Ohiok, Iowak, Ipar Dakotak eta Georgiak. Izan ere, abortua debekatzeko kanpaina ez da estatu bakar bateko ideia; oso ondo koordinatuta dago eta bultzatzaileen helburua gaia Auzitegi Gorenera eramatea li-

HAMAZAZPI DEBEKU HAMAR ESTATUTAN

Elizabeth Nash Guttmacher Institutuko analistak Ameriketako Estatu Batuetan azken hilabeteotan abian jarri diren abortuaren aurkako ekimenak sailkatu eta zenbatu ditu. Urtea hasi zenetik joan den maiatzaren 20ra arte, abortatzeko aukerak murriztea helburu duten 378 neurri onartu dituzte. Horietako %40 era ezberdinetako debekuak ziren. Gainera, epe berean AEBetako hamar estatuk hamazazpi debekuri argi berdea eman

diete. Alabama estatuko legea da larriena, ia kasu guztietan debekatu baitu haurdunaldia etetea, baita bortxaketa eta intzestu kasuetan ere.

«Alabamako gobernadoreak lege proiektu hori promulgatu badu ere, klinikak zabalik egongo dira eta abortua prozedura mediku seguru eta legezkoa da estatu osoan», esan du Randall Marshall Alabamako Askatasun Zibilen Aldeko Amerikar Batasuneko zuzendariak.



tzateke, gaur egun –Trump presidentearen izendapenen eraginez– epaile kontserbadoreek inoiz baino indar gehiago baitaukat.

Faith2Action eskuin muturreko taldeak prestatu du lege eredu bat, ekimenak arrakasta izan dezan. Janet Porter ekin-tzaile kontserbadoreak zuzentzen du aipatu taldea eta badi-rudi orain urte batzuk arrakastarik izan ez zuen ideiak oraingo honetan egoera aldatu egin duela.

OHIOREN BILAKAERA

Porterrekin hamar urte baino gehiago daramatza «sei asteko legeak», abortuaren aldekoen hizkera erabilita, aurrera ateratzeko presioa egiten. Hasiera batean muturrekoegia zen abortuaren aurkako kontserbadoreentzat ere, baina azkenean praktikan abortatzea ezinezko bihurtzen duten legeak

onartzen dituzte estatu batzuek. Ohion egin zuen lehengo ahalegina Porterrek. John Kasich gobernadoreak atzera bota zituen 2016an eta 2018an onartutako legeak, baina aurten arrakasta izan du ekimenak.

Umekiaren Taupadaren Legea esaten diote ofizialki estatu batzuetan onartu dutenari. Hau da, mediku batek fetuaren taupadak entzuten dituen momentutik aurrera (zortzigarren astean gertatzen da, nor-

«Bizitzaren aldeko» agintarien hipokrisia salatzen Alabamako manifestazioetan, abortuaren kontra egiten baitute heriotza zigorrari eusten dioten bitartean. Julie BENNETT | AFP

Genevieve McGinnis manifestariaren iritziz, «abortua legez kontrakoa bihurtzeak ez du bizitzarik salbatuko. Nerabe eta emakume askok azkenean beren burua hilko dute»

Faith2Action eskuin muturreko taldeko buruak hamar urte baino gehiago daramatza «sei asteko legeak», abortuaren aldekoen hizkera erabilita, aurrera ateratzeko presioa egiten

malean emakumeak haurdun dagoela ere ez dakienean), debekatuta dago haurdunaldia etetea. Emakumeak ez dauka abortua egiteko aukera aztertzerik ere, haurdun dagoela jakiten duenerako, legez kontrakoa baita.

GIRO KONTSERBADOREA

Herrialdeko lurralde askotan nagusitzen ari den giro kontserbadorea eskuin-muturrekoen aldekoa da, eta emakume pobreen kontrakoa, jakina. Joan den maiatzaren 17an AEBetako Senatuak Wendy Vitter Louisianako abokatua izendatu zuen barruti-auzitegiko epaile federal.

Vitterrek askotan esku hartu izan du abortuaren aurkako mitinetan eta urteak daramatza lanean Planned Parenthood erakundearen finantziazioa murrizteko asmoarekin. Gezurrak ere erabili izan ditu bere

helburuak betetzeko: New Orleanseko “Clarion Herald” egunkariari esan zion Planned Parenthoodek «urtean 150.000 emakume baino gehiago hiltzen dituela». Gainera, zientzialariek kontrakoa esaten badute ere, epaile federal berriak abortua bularreko minbiziarekin lotzen du. Ez da, oraindik bederen, Auzitegi Goreneko kide (bederatzi epaile ditu eta abortuaren inguruko azken erabakia hartzea berari egokituko zaio), baina izendapenak AEBetako Justizia Administrazioaren egungo giroa hobeto ulertzen laguntzen du. Eta garbi uzten du abortuaren aurkakoak, «bizitzaren aldekoak» beraiek erabiltzen duten hizkeraren arabera, erabat harrotuta daudela.

Edonola ere, begirale guztiek aipatzen duten izena Brett Kavanaugh epailearena da. Iazko urrian bihurtu zen Auzitegi Goreneko kide, nahiz eta Christine Blasey Ford irakasleak Kavanaughhen aurkako salaketa aurkeztu zuen, sexu abusua leporatuta. Bortxaketen inguruko kasu askotan gertatzen den moduan, abusuen biktimak erasotzaileak baino askoz ere tratatu okerragoa jasan behar izan zuen eta Trump presidenteak berak ere epailearen aldeko jarrera agertu zuen eta berehala sinatu zuen izendapena. Lotsarik ez! Eta epailerik injustuena, auzitegirik garrantzitsuenean suteak eragiteko prest.

Elizabeth Nash Guttmacher Institutuko analistaren iritziz, abortuaren aurkako talde askok uste du Brett Kavanaugh Gorenean egonda, une honetan nahikoa boto dutela “taupadaren legeak” Auzitegi Gorenera eraman eta “Roe versus Wade” izeneko erabakia indargabetzeko.

«Legegile kontserbadoreek egin dituzten kalkuluen arabera, abortua zazpigarren astetik aurrera debekatzen duen legea Gorenera iritsi daiteke eta bere osaketa zein den ikusita, 'Roe versus Wade' erabakia hankaz gora bota», Elizabeth Nashen egin duen irakurketaren arabera.

ERREPUBLIKANOEN DIRUA

George Hawley Alabamako Unibertsitateko Zientzia Politiketako irakaslearen iritziz, «bizitzaren aldeko mugimenduko belaunaldi honek ez du inoiz aukera hobea izango 'Roe versus Wade' epaia baliogabetzeko». Hawleyk gogoan du Alderdi Errepublikanoak asko zor diola abortuaren aurkako mugimenduari: «Hamarkada askotan, alderdiak diru asko bildu du, hauteskundeak irabazi eta Gorenean gehiengo kontserbadorea ezarri gero, 'Roe versus Wade' epaia indargabetu egingo duela aginduta. Abortuaren aurkakoek Alderdi Errepublikanoari horrenbeste eman diotenez, bidezkoa da orain beraiek abortua debekatzeko eskatzea».

Haurdunaldia etetea legekoa izatearen aldekoak ere ez daude geldirik egoteko. Nevada estatuak onartu berri du abortuak eragiten dituzten botikak legezkoak izatea. Gaur egun urtebete eta hamar urte bitarteko kartzela-zigorra ezartzen zaie laguntza medikurik gabe abortatzen dutenei. Gainera, oraindik Nevadako Senatuak onartu behar duen legearen arabera, medikuak ez du abortuaren ondorioen berri pazienteari esplikatu beharrik. Vermonten, berriz, onartu dute abortua «oinarrizko eskubide bat» dela eta inongo erakundek ezin duela eskubide hori murriztu.

«NEURE BURUA HILKO NUEN BORTXATU NINDUEN GIZONAREN UMEA IZATERA BEHARTUZ GERO»

Esku hartzaile batzuek arropa zabaltzeko erabiltzen diren pintzak erakutsi zituzten Alabamako mobilizazioetan, abortua legez kontrakoa izaten bada emakume askok erabiliko lituzketen teknika arriskutsuak gogora ekarriz. Sam Blakely Montgomeryko neska gazteak kazetariei esan zenez, «nik abortatu behar izan nuenean lege hau indarrean egon izan balitz, badakit bortxatu ninduen gizonaren umea izateko gauza ez nintzatekeela izango. Neure burua hilko nuen». 25 urte ditu eta orain bi urte bortxatu zuten. Orduan izan zuen aukera emakume guztiek izan dezaten, orain bera ateratzen da kalera protesta egitera.

Alabamak onartu duena AEBetan abortuaren aurka inoiz aurrera atera den araudirik «zorrotzena» da, kaltegarriena haurdunaldia eteten dutenentzat zein haurdunei laguntzen dienentzat. Abortua egiten duten medikuentzat 99 urteko kartzela-zigorrak aurreikusten ditu. Bi pertsona daude uneotan estatuan abortuak egiten eta bertan bizitzen, eta aurki horiek ere ihes egin beharrean senti daitezke, aurkakoen presioen eraginez.

Haurdunaldiak modu seguru eta legezkoan eteteari amaiera ematen diote abortuaren aurkako legeek, ez abortuari berari, Leana Wen Planned Parenthood erakundeko zuzendariak esplikatu duenez. Milaka emakumeren bizia mehatxupean jarriko da: «Iaz, mundu osoan 30.000 emakume hil ziren legezko abortu seguruaren aukera ez izateagatik, 1973 arte AEBetan urtero milaka emakume hiltzen ziren moduan».

Gainera, egungo egoera ere ez da lasai egoteko modukoa. Wenen datuen arabera, «emakume gehiegi bizi dira AEBetan abortu seguru eta legezkoak egiteko aukerarik ematen ez duten lekuetan». Pertsona horiek mediku zerbitzuak erabiltzeko aukerarik ere ez dute izaten. Eta paperik gabeko emakumeen kasuan, ia ezinezko da osasun zerbitzuak erabiltzea «Gobernu honen moralik gabeko politiken eraginez».



“Gizonak haurdun geratuko balira, abortuak gasolindegietan egingo lirateke”, irakur zitekeen emakumeen eskubideen aldeko Alabamako manifestarien pankarta batean, borroka eta umorea uztartuta. Martha Lehman 76 urteko manifestaria pozik zebilen, gaztaroko borroka berean, Washingtonen egindako protestaldian. Bilobak «mundu hobean» bizitzea nahi du, besterik gabe.

Goiko irudian, Sam Blakely, kazetariekin hizketan. Behekoan, Alabamako manifestari bat bere txarteltxoarekin.
AFP

Donald Trump Ameriketako Estatu Batuetako presidenteak idatzizuen txio batek urduri samar jarri gaitu Huawei Txinako konpainiak saldutako sakelako telefonoren bat dugun erabiltzaileok. «Gerra komertziala» esaten diote AEBek eta Txinak abian jarri dutenari eta teknologian aditu ez garenontzat erabat ulertezina da gatazka hori: nola da posible estatubatuar agintariak herrialde bereko konpainia askori kalte izu-

durra argia da: merkataritza gerratan ere oso estimazio handia duen baliabidea da gezurra presio egiteko garaian, mahaiaren beste aldean dagoen ordezkaria estutzeko alegia. Beraz, adituek diotenari jaramon egitea izango da gauzarik onena. Orrialdeotan erabiltzaileok kontuan hartu beharreko puntu batzuk jaso ditugu.

Segurtasuna

AEBetako presidenteak Huawei konpainiaren aurka eman dituen aginduen arabera, Goo-

gle konpainiak ezin dizkio Txinako etxeari berak sortu eta kudeatutako Android sistema eragileak eman. Erabiltzaileon ikuspuntutik begiratuta, segurtasun eza litzateke arazorik larriena, Android sistemak plazaratzen dituen gaurkotzeko Huawei telefonoan sartzeko aukerarik izango ez dugulako. Eguneratze horiek seguruagoak egiten dituzte telefonoak, hackerren kalterako, bestelako arazoak konpontzeaz gain.

Androidek jakinarazi du Google Play zerbitzuak eta Google Play Protect segurtasun

sistemak ondo funtzionatuko dutela egungo Huawei telefonoetan. «Android esperientzia osoa» eskainiko duela esan zion Googlek BBC britainiar kateari. Carles Garrigues UOC Kataluniako Unibertsitate Irekiko irakasleak uste du oraingoz ez dugula arazorik izan behar huaweidunok. Arazoa aurrerago sor daiteke, eta abuztutik aurrera merkaturatzen diren *smartphone* berrietan (Android sistemarik gabe egongo dira hortik aurrera saltzen direnak), aplikazio batzuk eguneratzea ezinezkoa izango

{ analisisia } Jose Angel Oria

Huaweidunon komeriak

garriak eragingo dizkion debekua ezartzea? Ekonomia Lankidetza eta Garapenerako Antolakundeak, Nazio Batuen Erakundeko zerbitzu ekonomikoek eta Nazioarteko Diru Funtsak ere azpimarratu dute «gerra» moderno hori erabiltzaileontzako oso kaltegarri izango dela, gatazkarekin nolabait lotutako konpainiei eta munduko hazkunde ekonomiko globalari min egiteaz gain.

Hala ere, Donald Trumpek bereari eusten dio oraingoz. Ezin da baztertu edozein egunetan Txina erraldoiarekin itun «zoragarri» bat lortu duela esatea. Sinesgarritasun gutxi du agintariak eta AEBetako hauteskunde kanpainan oso garbi utzi zuen gezurren artean ikaragarri ondo konpon-tzen dela, bere arerioak baino hobeto behintzat.

Kasu honetan ere, Huawei *smartphone* bat dugunon bel-

Huawei markako sakelako bat erosi dugun milioika lagun urduri gabiltza: Donald Trump presidenteak espioitza leporatu dio multinazionalari, eta, aitzakia horrekin, AEBetako konpainiek ezin dute negoziarik egin Txinakoarekin. XXI. mendeko nagusitasuna dago jokoan. Oraingoz, mugikor berarekin segitzeko moduan gara.

delako. Edonola ere, Android sistemak ez du bertsio berririk egingo datorren urtera arte (iturri batzuek esan dute urtea bukatu baino lehen plazaratuko duela) eta normalean hila-beteak pasatzen dira berrikuntza hori telefono guztietara eraman arte. Horrenbestez, lasai egotea komeni zaigula ondorioztatu behar, adituek esana irakurrita. Haserretu eta mugikorra harrika botatzea ideiarik txarrena litzateke.

Atzerapena

Telefonoan zaharkituta geratu den sistema operatibo bat edukitzea segurua al da? Gaur bihar baino seguruagoa, Helena Rifa irakaslearen arabera: «Sistema operatiboaren bertsio berria sortzen denean, bertsio zaharren segurtasun eguneratzeak ez dira lehentasunezkoak eta atzerapenak

izan daitezke». Adituak gogorazi du mugikorra behar bezala gaurkotuta edukitzen ez badugu, norbaitek geure informazio pertsonal guztia, pasahitzak eta aplikazioek erregistratuta dituzten eguneroko jarduerari buruzko datuak lapurtzeko arriskua dagoela.

App Gallery

Huaweik jakinarazi du bere sistema eragile propioa garatzen ari dela, debekuari aurre egiteko. Cesar Corcoles UOC Kataluniako Unibertsitate Irekiko irakasleak esplikatu du Android sistema kode irekian oinarrituta dagoela eta edonork egin dezakeela sistema operatiboaren bertsio libre bat. Gerta daiteke mugimendu hori nahikoa ez izatea Txinan bizi ez garen erabil-

tzaileontzat, aplikazioak deskargatzeko plataforma zero-tik abiatuta egitea «oso zaila delako», Corcolesen arabera. Apple etxearen App Store eta Google Play zerbitzuen pare jartzea asko kostatuko zaie Huaweikoei. Windows Mobile sistema operatiboak porrot egin omen zuen aplikazioak deskargatzeko dendak beste bi plataforma horiekin lehia-tzea lortu ez zuelako. Irakasleak gogorazi du Huaweik App Gallery duela, Txinako merkatuan funtzionatzen duena. Plataforma horren erronka litzateke beste horiek eskaintzen dituzten aplikazioak bezain erakargarriak eskaintzea.

Gmail eta Facebook

Gmail (Google mail) Google-ren doako posta elektronikoko zerbitzua huaweidun as-

kok erabiltzen dugu. Garri-gues irakasleak dio Huawei posta elektronikoko edo Google Maps bezalako zerbitzurik gabe utziz gero, Txinako konpainiak oso kolpe gogorra jasango lukeela: «Behin betiko kolpea iritsiko zaio Facebook bezalako beste enpresa batzuek atek itxiko balizkio. Orduan, Huaweiren gailu berriek oso zaila izango luke Txinako merkatutik kanpo arrakasta izatea».

Erabiltzaileen datuak

Adituek diote hemendik aurrera gertatzen dena Txinako agintariekin hartzen dituzten erabakien arabera izango dela. Ernesto Pascual irakasleak nabarmendu du Google

Song Liuping (erdian, eserita) Huawei konpainiako Gai Juridikoetarako aholkulariak eta Vincent Pang (haren eskuinean) Komunikazio arduradunak prentsaurrekoa eskaini zuten asteazkenean, Shenzhen hirian.

Hector RETAMAL | AFP



konpainia bera ere kaltetzen duela Trumpen debekuak, hemendik aurrera huaweidunon datuak biltzerik ez du izango-eta: «AEBek badakite XXI. mendean teknologia kontrolatzen duenak informazioa eta mundua ere kontrolatuko dituela».

Izan ere, telefonoen bidez datu ugari biltzen dituzte konpainiek, eta horregatik estrategikotzat dute arloa. «Debekuaren gauzarik esanguratsuena da datuen zirkulazio libreari oztopo bat jarri diola», Pascualen arabera.

5G sarea

Begirale guztiak bat datoz: Trumpen debekuaren helburu nagusia 5G izeneko sarean

Huaweik lortu duen nagusitasuna kaltetzea da. Bost axola bere erabakiaren eraginez AEBetan milaka lanpostu gal-tzen badira.

4G sarearekin baino hogealdi bizkorrago nabigatzea ahalbidetuko omen duen teknologia propioa garatu du Huawei konpainiak eta adituek diote bizpahiru urteko aldea duela egun lehiakideekiko. «Gauzen Internet» posible egingo du aipatu sareak, eta Trumpek ezin du onartu etorkizuna markatuko duen arloan, negozio izugarriak egiteko aukera emango duen teknologian, estatubatuarrak lehen postuan ez egotea. Ohi-tuko beharko dute, bada. Neurri batean, huaweidunok gara errudun.



Saioa Aginako Lamarain
Psikoterapeuta

Nerabeak eta helduak

Nerabezaroa esplorazio eta hazkunde aldia da, abagune handikoa, baina baita zaurgarritasun handikoa ere. Aldaketa ugari gertatzen dira maila fisikoan, emozionalean bezainbeste. Haurtzarotik helduarorako trantsizio garaia izanda, garunak ezaugarri bereziak ditu.

Hamabi urte inguruan, nerabezaroaren atarian, garunak gehieneko tamaina lortzen duen arren, heldzea falta zaio oraindik, eta hori ondorengo hamar urteetan zehar gertatuko da. Heltze prozesuan, neuronen arteko konexio berriak gertatuko diren bezala, batzuk desagertu egingo dira. Garapenak, garunaren atzeko aldetik hasi eta aurreko alderaino egiten du bidea, horrela, area prefrontala, hau da, heltzen azkenekoa, kopeta inguruan dagoena da. Prozesu horren bitartez, helduak haurrengatik ezberdintzen dituzten zenbait gaitasun lortzen dira: autokontzientzia, identitatearen gara-

pena, esperientzia berrien araketa, emozioen kudeaketa, pentsamendu konplexuagoa, harremanen esplorazioa, arrazoitzeko gaitasuna, eta abar. Aldaketok, gaitasun handiago eta konplexuagoak lortzera bultzatzen duten heinean, aukera gehiago ere ekartzen dizkiote nerabeari. Baina, beste alde batetik, nerabea kalteberagoa bihurtzen da heltze prozesurako bidean.

Hala eta guztiz ere, dena ez dago garunaren menpe. Garunaren heltze prozesuan, garrantzizkoa eta ezinbestekoa da nerabeek guraso eta beste heldu erreferenteengandik jasotako heziketa. Horrela ba, nerabezaroak erronkak ekartzen ditu guraso eta seme-alabentzat eta ulergarria da gurasoentzat beren rola aurrera eramatea korapilatsua izatea. Aldaketek autonomia bultzatuko dute nerabea eta, horrek, gurasoengan sentimendu kotraesankorrak sor ditzake. Zenbait guraso mehatxatuak sentitzen dira seme-alaba nerabeak beren buruak berresten eta identitate propioa gara-

tzen hasten direnean. Seme-alabek al-tzotik alde egin dutela eta interes eta emozio berriak dituztela onartzea ez da erraza. Horrela, nerabeek haur izateari uzten diotenean, gurasoengan ere trantsizio bat ematen da eta erreallitate hori ukatzeak askotan harreman arazoak ekartzen ditu. Gurasoek bizi duten mehatxuaren aurka defentsajarrera hartzen dute, eta hori askotan seme-alaben nerabetasun ezaugarriak ukatuz egiten dute, nerabearengan oraindik dirauen haur identitateari oratuz. Gurasoek eta helduek orokorrean nerabeekiko harremana hobetu eta aldatzeko eman beharreko lehen pausoa norberaren burua hobeto eza-gutzea da.

Nerabezaroa frogaldia da guztientzako. Gure seme-alabenganako dugun jokaerari buruz hausnartzeko eta beraien espazioa aurreiritzirik gabe errespetatzen hasteko garaia da. Beharrezkoa da haiei bizitzea tokatzen zaiena esperientzia dezaten uztea eta beren esperientziak, erabakitzen duten unean bizitakoak, partekatzeko konfiantza nahikoa eskaintzea. Ezinbestekoa da gurasoek ikustea euren seme-alabekiko banako independenteak direla. Horrek lagunduko baitie seme-alabek erabakiak hartzeko, onartzeko, ukatzeko eta aldatzeko duten eskubidea aitortzen. Benetako ahalegina egin behar dugu nerabezaroaren gainean nagusi den negatibotasun haloa alde batera utzi eta nerabezaroa gure seme-alabekin dugun harremana indartzeko abagune moduan ikusteko. Zure semea edo alaba, auzokidea edo ikaslea aldi honetan baldin badago, lagun izan eta berarekin ikas ezazu, ezagut ezazu, maite ezazu eta onar ezazu erabakiak hartzen hasi dela, bere bidea aukertzen hasi dela. •



Nerabezaroa, beraien espazioa aurreiritzirik gabe errespetatzen hasteko garaia ere bada

{ asteari zeharka begira } **Iñaki Altuna**

Hauteskundeak berriro

Hauteskunde ondorena udal eta foru gobernuak osatzeko mugimenduetan murgilduta dago, bete-betean, oraindik ere herritarrek hautetsontzietan azaldutakoari erreparatzeak merezi badu ere. Hauteskundeek Euskal Herriaren errealitatearen argazki osoa ez dute erakusten, jakina denez, baina argazki hori osatzeko lanabes baliagarria dira.

Azkenaldian maiz esan izan den bezala, berriro ere Euskal Herria errealitate berezia eta berezitua dela argi eta garbi azaldu da, joan den apirileko hauteskundeetan gertatu zen bezalaxe. Eta berezitasun horretan kontent egoteko motiborik ere bada, kontuan hartuta, esate baterako, eskuin muturrak beste inon baino indar gutxiago duela gurean. Europako hauteskundeetan Ipar Euskal Herriko emaitzei begiratzea besterik ez dago. Frantziako Estatuan Le Penen taldea izan zen bozkatuena. Euskal Herrian, berriz, Macron izan zen garaile eta, bere atzetik, bigarren, ez da Le Pen geratu, ekologistak baizik. Le Peni aurre egiteko aukera hori ere hartu dute euskal herritarrek. Ultraeskuinak izandako emaitzak kezkagarriak izanda ere, bistakoa da haren sarrera eskasagoa dela euskal lurralde horietan beste lekuetan baino. Zer esanik ez Hego Euskal Herrian, non Voxek, espero moduan, ez duen ezertxo ere lortu.

Izan ere, abagune zehatzaz harago, atzera begiratu, herri honetan zenbait oinarri positibo finkatu dira esan daiteke. Negatiboak ere, jakina, baina ez genituzke gutxietsi behar herri bezala egindako urratsak. Ez da denbora asko izugarritzko arrakasta izan zuen artikulu bat argitaratu zuela Jon Maiak ("A favor del futuro, a favor de Errenteria"). Besteak beste, bere garaian Espainiatik etorritako migrazioaren ondorengo komunitateen arteko talkak gainditzeko Errenteriak azkenaldian egindako lana goraipatzen zuen. Goraipatzekoa zinez elkarbizitzaren alorrean Errenteriak egindako esfortzua eta benetan ederrak Maiak azaldutako zenbait ideia, nahiz eta, beharbada, ikuspuntu horrek, nahi gabe ere, azken hamarkadetan egindako oso ekarpen garrantzitsuak gutxiesteko arriskua era bazekarren berarekin pasarte batzuetan. Migrazio horren garaikidea baita Euskal Herrian sor-

tutako abertzaletasun iraultzailea, eta esan beharra dago, gure Sabino Aranarekin alderatuta, oso oinarri egokiak utzi zituela proposamen eta ikuspuntu xenofoboak baztertzeke. Euskal Herrian abiatu den ziklo berriak estrategiak berritzea, ikuspuntuak iraultzea, politikoki arriskatzea eskatzen du, erradikalki, atzera begira lotan geratu gabe errekonozimenduen zain; baina bainuontziko ur zikina botatzerakoan, kasu egin behar da haurra ere ez botatzeko.

Orain eta hemen dago, alabaina, arreta jarrita. Zer gertatuko ote den datorren asteetan dugu aipagai nagusia, igandeko emaitzak baloratzen segitzen dugun bitartean. Agerian geratu da EAJren gorakada, eta oso indartsu ikusi dugu EH Bildu ere, nahiz eta hazkunde hori ez den beharbada bat etorriko botere kuotarekin. EAEko eta Nafarroako PSOEk ere gora egin du, aurreko hauteskundeetatik etorritako Sanchez efektuari esker, efektu hori lurralde batzuetan beste batzuetan baino argiago ikusi bada ere. Emaitza horiek eta itun politikak trenkatuko dute erakundeetako go-

Hauteskunde zikloak eta bertan izandako mugimenduek euskal prozesu politikoari nola eragingo dioten ikusteko dago

bernuen banaketa. Mugimendu asko izango da datozen asteetan.

Ikuspuntu historikoaren eta egungo arreta guneen artean bada, horratik, aztertu beharreko beste aldagai garrantzitsu bat, hain zuzen ere, euskal prozesu politikoari eta haren norabideari zein eritmoari dago-kiona. Hauteskunde ziklo honek eta bertan izandako mugimenduek nola eragingo dioten horri guztiari ikusteko dago. Zein izango ote da gailentzen den norabidea? Aukera berriak eragiteko hautua edo eztabaida gai nagusiak blokeatzekoa? Eta egia esan, EAJri eta PSOERI bigarrenaren aldeko joera antzematen zaie. Aldaketa prozesu politiko eta sozialak azkartzeko arazo izan daiteke horien jokabidea, orain arte izan den bezalaxe. Halere, Katalunia, EAEko estatus politikoa, euskal gatazkaren sorburua zein ondorioak eta beste gai asko hortxe daude, eta ez dira besterik gabe desagertuko. •

HEZKUNTZA ALIANTZA

Ikastolen Elkartea eta Galiziako Semente eskolak
hizkuntza eta hezkuntza propioaren bidean elkartu dira

 **HEZKUNTZA** / Amagoia Mujika Telleria

Batzuk Galizian eta Euskal Herrian besteak, berariazko hizkuntzako eta norbere herriaren neurriko eta koloreko hezkuntza sistema propioan sinisten dute. Hartara, elkarlanerako akordioa sinatu dute, ahal duten neurrian, bidearen parte batzuk elkarrekin ibiltzeko. Ikastolen Elkartearen eta Semente eskolen arteko aliantza da.

Galiziako Letren Egunean, iragan maiatzaren 17an, elkarlanerako konpromisoa hartu zuten Ikastolen Elkartek eta Semente eskola galiziarrek. Izan ere, berariazko hizkuntza duten eta hezkuntza

sistema propioa izan nahi dutenen bidean eta ahaleginean elkarren ondoan bildu dira euskaldunak eta galiziarrak. Eta horregatik osatu dute aliantza, tasunak eta helburuak partekatzen dituztelako, nahiz eta bakoitzak tamaina, erritmo eta testuinguru desberdina izan.

Ikastolen Elkarteko Koldo Tellitu eta Semente eskolen ordezkari Beatriz Bieites akordioa sinatzeko ekitaldian, Santiago de Compostelako Museo de Pobon.
GAUR8

Aliantza horren oinarriek zehazten dutenez, hezkuntzan hizkuntza baten normalizazioa lortzeko biderik eraginkorrena murgiltze eredua da. Hartara, gizartea horrekin kontzientziatzeko eta estrategia komunak garatzeko konpromisoa hartu dute.

Herriko hezkuntza proiektua, autogestionatua, irabazi asmorik gabea eta hezkuntza tradizionalaren alternatibak eskaintzen dituen. Aukera hori sendotzea ere badute erronka Ikastolen Elkartek eta Semente eskolek. Eta Estatu espainolaren baitan, Madrildik inposatzen diren lege proiektuei aurre egiteko elkarrekin arituko direla hitzartu dute, «hezkuntza sistema propioa sortzea mugatzen baitute



lege proiektu horiek». Komunikazioa, elkartrukea, elkartasuna, elkarrekiko ezagutza bultzatzea, esperientzia pedagogikoak eta materiala partekatzea... elkarlanak badu nondik tira egin eta urtean bitan elkartzeko konpromisoa hartu dute erronkei eusteko.

SEMENTE ESKOLAK

Lehenengo Semente eskola 2011ko azaroan ireki zen Santiago de Compostelan. Bi eta sei urte arteko umeentzako eskaintza biltzen du, erabat galegoz. Geroztik ezaugarri bereko eskola gehiago zabaldu dira. Gaur egun, haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako zortzi eskola daude martxan eta beste hiru irekitzekoak dira.

Semente eskoletan pedagogia eraldatzaile aurreratua eta aurrerakoa erabiltzen dute. Hezkuntza galegoa da, jarduerak guztiak galegoz egiten baitira. Eskolok sormen eta berrikuntza espazioak dira eta laikoak. Hezkidetzak eta berdintasuna dituzte lan ildo nagusi; gizon eta emakumeen arteko parekidetasun ezari eta gizartean ematen diren bazterketei aurre egin nahi baitiete.

Semente eskolak autoeraketaren bidez kudeatzen dira, era asanblearioan. Hartara, gurasoek, hezitzaileek eta ikasleek parte hartze zuzena dute egunerokoan. Askatasuna, errespetua eta autoerregulazio arduratsua dira aukera pedagogiko horren zutoinak; beren herri eta auzoetan txertatuta daude eta kultura artekotasan espazioak dira. Gainera, naturan oinarritutako heziketa sustatzen dute.

Mende honetan galego hiztunen beherakada nabarmena izan da. Egoera horri aurre egiteko sortu dira Semente eskolak; galegoaren berreskurape-



Goiko irudian, Semente eskoletako ordezkariak. Lerroan alboan, ekitaldiko beste une bat. Semente eskolek indar handia daukate kultura arloan. GAUR8

na eta ondorengo belaunaldientzat kulturaren transmisioa ziurtatzeko. "Escolas de Ensino Galego" deiturikoetan, galegoa da komunikazio-hizkuntza eta umeen autoestimulua linguistikoa indartzen saiatzen dira. Curriculum nazional galegoa osatu nahi dute eta horretarako ari dira lanean.

Madrildik inposatzen diren lege proiektuei aurre egiteko elkarrekin arituko direla hitzartu dute euskaldunek eta galegoek, «hezkuntza sistema propioa sortzea mugatzen baitute»

Komunikazioa, elkartrukea, elkartasuna, esperientzia pedagogikoak eta materiala partekatzea, elkar-ezagutza bultzatzea... elkarlanak badu nondik tira egin

Ikastolen Elkarateak Semente eskolekin izenpetutako akordioa garrantzitsu jo duzue. Zergatik?
Bai, gure ezaugarri komunak dituen horrelako elkarate batekin elkarlana bultzatzea garrantzitsua da. Hego Euskal Herrian egiten dugun lehen aliantza da, Ipar Euskal Herrian Seaskak eginak baititu antzekoak. 2009ko gure batzar nagusian helburu bezala zehaztu genuen elkarlanean aritzea hezkuntza eskola nazionala bultzatu nahi dutenekin. Estatu espainolean horrelako elkarlana garrantzitsua da, ez garela bakarrak irudikatzen dutelako, Galizian ere mugitzen ari direlako.

Ezaugarriak partekatzen dituzue, baina Semente eskolek ibilbide laburragoa dute eta artean txikiagoak dira.
Bai, egia da txikiagoak direla eta urte gutxiago daramatzatela. Seaskaren egungo egoerarekin pareka daitezke agian. Baina garbi daukate Galizian beharrezkoa dela galegoz aritzen den eskola nazional baten aldeko apustua egitea. Oraintsu emandako datuen arabera, Galiziako hezkuntza sistema publikoan, haur hezkuntzan, hiriburuetan %5 baino ez da galegoz egiten. Datu horien aurrean, Semente eskolen bultzatzaileek garrantzitsu jo dute galegoa eta kultura galiziarra erdigunean jartzen dituen hezkuntza eskaintza sortzea. Egia da Ikastolen Elkartea beste fase batean dagoela, pisu gehiago duela eta, segur aski, batez ere guk lagunduko diegu haiei. Baina guretzat oso garrantzitsua da bide berean dabiltzanak topatzea Estatu espainolean; gu bezala hezkuntza sistema nazionala defendatzen duten eragileak. Arnasgune ederra da hori guretzat. Bitxia da, baina gurean bezala Galizian, hezkuntza publikoaren eta pribatuaren arteko eztabaida hori bizi-bizi dago. Sementekoek erabaki dute, botere publikoen zain egon gabe, hezkuntza nazionalaren aldeko apustua egitea, bestela galegoa eskoletan erabat desagertuko dela ikusten baitute. Baina egia da kezkak eta hausnarketak partekatzen ditugula.

KOLDO TELLITU

IKASTOLEN ELKARTEKO LEHENDAKARIA

«Guretzat garrantzitsua da hezkuntzan bide berean dabiltzanak topatzea Estatu espainolean»

Semente eskolak, «Escolas de Ensino Galego» deiturikoak, herritik sortu dira.

Bai, herri mugimendu bat dira eta horretan antzekotasuna daukagu. Galizian barna hamar bat egoitza sozial dituzte, eta kultura arloan erreferente garrantzitsuak dira; musika, dantza, grafismoa... Sementekoak, eskolez harago, herri mugimendu bat dira eta Galiziako hainbat alorretan mugitzen dira. Hezkuntza arloan oraindik txikiak diren arren, kulturaren arloan oso indartsuak dira. Sementekoen atzean herria dago, hori garbi ikusten da.

Estatu espainoletik inposatzen den hezkuntza ereduaren kontrako bide horretan elkartu zarete galiziarrekin. Nola alde egin inposizio horretatik, zein da bidea?

Gaur egun egiten ari garena. Batetik, arlo instituzionalean egoera horri aurre egingo dion lege bat lortu nahi dugu. Bestetik, gure egunerokoan, euskal curriculum, euskara eta gure hezkuntza sistema nazionala bultzatzen dugu. Bide horretan, galiziarrek ere apustu bera egin dute. Oraindik ez dute curriculum propioa garatu eta lan horretan ere lagunduko diegu, aholkuak emanez.

Aliantza modu praktikoa nola gauzatuko da?

Hemendik gutxira, esate baterako, UEUK antolatutako jardunaldietan bada bat “Ikastolak eta kooperatibismoa” deiturikoa, eta horretan parte hartu dute Sementekoek, beren eredia azalduz. Horrez gain, joan den urtean Semente eskolak laguntzeko diru bilketan parte hartu genuen. Eta elkarren arteko

kontaktua egongo da; haiek gure proiektua ezagutzera etorriko dira eta alderantziz. Pixkanaka, joango gara zubiak eraikitzen eta loturak sortzen. Hala ere, esan beharra daukagu ez garela Semente eskolekin harremanetan dagoen eragile bakarra. Gure aurretik Hik Hasik eta Irrien Lagunak elkarrekin bazituzten harremanak. Baditugu ideiak eta elkarlana elikatuko dugu denon artean.

Globalizazioaren garaian, denok mundu garen honetan, zer-nolako panorama dute hizkuntza propioa bultzatu nahi duten hezkuntza ereduak?

Gure azkenaldiko kezka nagusietakoa hori da, ikusten dugulako gure ikasleen artean euskararen erabilera maldan behera doala. Faktore nagusienetako bat hori da hain justu; globalizazioaren eragina. Horri buruzko hausnarketa sakona egiten ari gara Huhezirekin batera.

Eta Galizian gauza bera gertatzen da. Semente eskolen inguruan dabiltzanek *reintegrismo*-a bultzatzen dute. Galegoak gaztelerarekin antzekotasuna du, baina portugalerarekin askoz handiagoa. Hartara, mundura ateratzeko tresna gisa aurkeztzen dute galegoa, eta portugalerara erabiltzen den munduko tokietara begira jartzen dira. Nolabait, munduan hizkuntza erreferente modura ikusten dute portugalerara eta hori beren mesedetan dela uste dute.

Baina, lehen esan bezala, arazo larriena da hezkuntza publikoan galegoak apenas duela lekuri. Hezkuntzan galegoaren egoera oso txarra da, baina kalean euskararena baino hobea. Kalean asko entzuten da galegoa.



GAUR8

Ziburu, euskararen arnasmune berri bat

Miren Azkarate
Badiola

Euskarak eta euskal kulturak arnasmune berri bat izango dute gaurtik aurrera. Bi estatu handiren artean dugun herri txiki honek hainbeste behar duen beste oasi txiki bat izango da, urte luzeetan gertatuko denaren esperantza. Non gainera eta euskara hizkuntza existitzen omen ez den leku batean. Ez gaizki ulertu, euskara hizkuntza ofiziala (ezta koofiziala) ez den lurralde bati buruz ari naiz; Lapurdiri buruz, hain zuzen ere.

Kostako herri txiki zein polit batek aurtun lehen euskal liburu eta disko azoka bat izango du, Ziburuko I. Liburu eta Disko Azoka ospatuko da gaur herriko plazan.

Euskal Herrian zehar baditugu horrelakoak. Ezagunena eta handiena Durangoko Azoka, non urtetik urtera bertaratzen den jende kopurua handiagoa den eta bertan aurkeztu diren produktuak ere ugartzen doazen. Baina ez da azoka bakarra eta gaurkoa ikusita badirudi euskarak eta euskal

kulturak uste baino osasun hobea dutela. Hala izango ote da!

Azken urteotan gorakada nabarmena bizitzen ari da euskara Ipar Euskal Herrian, horren adibide garbia da Seaskako ikastolek urtetik urtera duten matrikulazioen hazkunde ikaragarria. Euskarak badu harrobia eta nonbait geroz eta handiagoa; garrantzitsua azoka sortu berri honek kontsumitzaileak izan ditzan.

Ongi etorri, eta urte askoan, Ziburuko Liburu eta Disko Azoka. •

Argi luzeak

Antton Izagirre

Hauteskundealdi luze baten azken saioa igarota, alderdi politikoak, komunikabideak eta eragile desberdinak gobernantzarako negoziazio eta akordiorako espekulazio eztabaidaren erdian murgilduta dabilzan honetan, epe motzeko begirada horretatik harago galdera bat egin beharra sumatzen dugu: ezer aldatu al da benetan? Hau da, gizartearen egitura ekonomiko-sozialean eragin izateko adineko mugimendurik suma daiteke ala guztiak bere horretan jarrai dezan bermatzeko makinaria izan dira hauteskundeak eta eratorritako indar korrelazioak? Alderdi politiko desberdinen analistak eta fokuetatik aldenduz

gero, zer ikuspegi gailentzen ari zaigu argi luzeak piztuta?

Hauteskunde biharamunean, Adegiko ordezkariak hor atera zaizkigu enpresetan langileen soldata igoeraren kargak enpleguaren sorrera arriskuan jartzen duela ohartaraziz.


Axola gutxi gobernantza nola eratzen den. Kapitalaren boterea non dagoen aldarrikatzera datozela ez dago zalantzarik. Edozein kasutan esan liteke, euskal gizartearen gehiengoak eskuin politikoa-ri babesa eman diola, nahiz eta kalean aldarrikatzen diren eskaera sozialak bestelakoak diren: erretiro duina, gutxiengo soldata, generoaren arteko arrakalari ez, prekarietateari ez, zerbitzu publikoak...

Nola ulertu kontraesana? Ala, ez dago kontraesanik eta orotara gizarteak ez dio aitortzen politikagintzari eraldaketa sozialerako gaitasunik?

Edonola ere, edo behar bada horregatik, ezkerreko ikuspegia duten alderdi politiko, sindikatu eta gizarte eragileek, luzerako begirada jarrita, badute eraldaketa sozialean eragiteko erantzukizun eta motiborik.

Kapitalismoaren oldarraldia ez da kasualitatea eta benetan gizarte justuagoa nahi badugu, horri aurre egitea betebeharra da. Zentzu horretan aurkeztu berria den Euskal Herriak Kapitalari Plan- to plataforma indarrak metatzeko eta lanerako aukera izan liteke. •

LUR AZPIKO ABENTURAK



iRRITZIA:



Amaia BALLESTEROS



Marisol RAMÍREZ | FOKU



IKUSMIRA

«RAFI ESTENAMORADO KON NAFIRA»

Bukatu da, auskalo noiz arte, eskolak hauteskunde eskolaz mozorrotzen diren sasoia. Bilboko eskola honetan, ostiralean azken orduan mezua utzi zuen arbelean norbaitek, maitasun istorio baten berri emanez. Agian norabide bakarrekoa da maitasuna; Rafik Nafira maite du, baina ez aldrebes. Akaso Nafira kokoteraino dago Rafiren maitasunarekin eta Rafiren lagunen adar jotzearekin. Mezua sinpatikoa begitandu arren, uste baino mikatzagoa izan daiteke. Arbelaren azpialdeko mahaian maitatzeko moduak ere hautatzen dira, maitasuna politikoa delako, askori ez iruditu arren. Nor maitatu eta nola maitatu ez da erabat modu librean eraikitzen dugun zera magikoa; jendarteko arauen, hesien eta estereotipoen gainean eraikitakoa da. Adinaren arabera, bizitzako sasoia-
ren arabera, norbere izaeraren arabera, arau eta hesi horiei lotuago edo askeago maitatu daiteke. Eta eraikitakoa deseraiki ere egin daiteke. Baina bai, hauteskundeetan hori guztia ere aukeratzen da, politikariek orokorrean horri buruz hitz egiteko ohiturarik ez duten arren. Horregatik da hain tamalgarria Skolae bezalako proiektuak balantzaka ikustea; ez direlako asko izaten jendartea erraietatik aldatzeko ausardia izaten duten politikariak. Amagoia Mujika Telleria

KARDENA BILDUMA

XVI. mendeko euskal bordatuen historia,
jantzi berri eta erabilgarri bihurtua

 **KULTURA** / Maider Iantzi Goienetxe

Oihane Pardo Amarenak markaren sortzaileak bere tailerreko atea zabaltu dizkio GAUR8ri azken proiektua aurkezteko: Kardena. Era ezberdinetan erabil daitezkeen udarako jantzi erosoak dira, liho eta kotoizko oihal naturalekin eginak, bertan eta «zero waste» filosofiarekin. Ederrak dira, atzean daukaten historia bezalakoak.

Donostiako Tabakalerako laugarren solairuan du tailerra Oihane Pardo diseinatzaileak, Amarenak markaren sortzaileak. Ezagunak dira amonaren kaikutik abiatuta ikertzen eta berritzen hasi eta plazaratu zituen kaikuak. Geroztik «janzteko istorioak» bilatzen, sortzen eta transmititzen jarraitzen du. Beti dabil egitasmo ugarirekin esku artean eta gaur azkena erakutsi digu.

Antzina, Euskal Herriko emaztegaiek arreoak prestatzen zuten eta haren parte inportante bat ziren bordatuen istorioa jantzi digu. Literalki.

«Ideia bila nabilenean museoetara noa», aitortu digu Pardok argazki saioa bukatu eta lasai eseri garenean. Begiratu eta ikertzen hasten da zerbait interesgarria topatu arte. Kasu honetan, gurutze puntuz egindako bordatu batzuk aurkitu zituen San Telmo Museoaren bilduman. «Informazioa eskatu nion museoari eta liburu bat erakutsi zidaten, non Eva Elortza eta Mariasun de Miangolarrak bordatuen esanahiari buruz egin zuten ikerketa jasotzen den. Haiekin bildu nintzen eta Bilboko Euskal Museora ere jo nuen».

Hala ezagutu zuen historia. Antzina, Euskal Herriko emaztegaiek arreoak prestatzen zuten ezkontzeko. Beren bizitzan zehar biltzen zuten ondarea zen, ezkontzerakoan etxe berriari emateko. Bertan, lihoak garrantzi handia zuen, emakume gehienek lihoa lantzen baitzuten lursail txiki batean. Etxeko oihal guztiak liho horrekin egiten zituzten.

Ezkontza egunean, gurdi batean erakusten zuten arreo guztia: aulkiak, mahaiak, eltzak... Goialdean ohe bat jartzen zuten, ohazalarekin. Bordatu horiekin apainduta zeuden. Emazte berrien trebetasuna eta estatusa islatzen zuten. Eva Elorzak deskubritu zuenez, batzuek euren kabuz egiten zituzten, eta, besteek, aldiz, erosi.

Teorian bikoteak erabiltzeko ziren, baina belaunaldiz belaunaldi transmititzen ziren, beste erabilera bat emanez batzuetan. San Telmo Museoak dituenak XVI. mendekoak dira. Ohearen alde batean bakarririk agertzen ziren ohazalak, hormaren kontra jartzen baitziren ohantzeak. Lihozko maindireak apurtu edo zahartzen zirenean, bordatua moztu eta tximiniaren gainean jartzen zuten, edo mantel bezala... Gaur egun horrekin identifikatzen du jendeak.

Oihane Pardo, Tabakalerako tailerrean, Kardena proiektu berriko jantziak soinean, Amarenak markako zenbait kaikuz inguratuta.
Juan Carlos RUIZ | FOKU



«Proiektua lantzen ari nintzenean, beste herrialdeetako jendearekin hizketan, esan zidaten Finlandian eta Palestinan antzeko bordatuak daudela. Bordatu motibo ezberdin asko dago. Adibidez, San Telmo Museoaren bilduman 80 baino gehiago daude. Horiek dira gaur egunera iritsi dire-

«Gure kulturen gauza oso interesgarriak ditugu, jendeak ezagutzen ez dituenak eta diseinu eta sormen pixka batekin beste irteera bat izateko aukera dutenak»

Elkano Fundazioarekin dabil orain. Aurten mundu biraren 500. urteurrena da eta garai hartako marinelen jantziak berritu nahi dituzte, kalerako jantziak egiteko ideiarekin



nak, baina segur aski familia bakoitzak bere bertsioa izango zuen. Elorzak uste du txantiloiren bat egongo zela, etxez etxe pasatzen zutena. Horregatik aurki ditzakegu agian Finlandian eta Palestinan antzeko bordatuak».

ARTISAUA ETA DIGITALA NAHASIZ

Bordatuak ez ezik, beren historia ere oso polita iruditu zitzaion diseinatzaile donostiarri eta zerbait egitea erabaki zuen, Amarenak markaren funtzioa hori baita: euskal tradizioko istorioak hartu, diseinuaren bidez berritu eta erabilgarriak diren jantzi berriak ateratzea. «Gehien interesatzen zitzaidan pausoa zen nola egin bordatu horiek era industrialago edo modernoago ba-

tean erreproduzitzeko, eskuz egiten baitziren, eta, jakina, lan izugarria zuten. Hori izan da galtzea ekarri duen arrazoietako bat. Interesgarria izan da ikertzaileekin mintzatzea ere. Esan didate bordatu horiek garrantzitsuak zirela emakumeek elkarrekin egiten zitu zutelako. Elkartzeko espazio bat sortzen zen. Arratsalde eta gauak batera pasatzen zituzten, josten eta konpartitzen».

Errepikapen prozesu hori eta artisau aire hori mantentzeko, teknika ezberdinak nahasi zituen, artisau eta analogikoagoak eta digitalak. «Pauso asko izan ditu diseinu prozesuak. Bordatuak digitalizatu ditut, baina hasieran oso teknika artisaua izan zenez oreka hori mantentzea lortu

dut». Behin hori lortuta, horrekin zer egin galdetu zion bere buruari. «Amarenaken barruan moda egiten dut. Ez nituen berriro maindireak egin nahi. Kalera atera nahi nuen lana eta horretarako moda zen bidea».

Beti saiatzen da moda iraunkorra egiten. «Asko inspira-

«Modan dagoenari begiratzen diogu, baina museoetara joaten naizen aldiro txundituta gelditzen naiz. Zenbait gauza aldatuz, ezberdin konbinatuz jantzi ederrak lortzen dira»

«Estilo pila nahasten ditugu, mundu osoko gauzak. Bakeroak laneko prakak ziren eta egun denerako erabiltzen ditugu. Berritasun gutxi dago. Denok ezberdin baina ia-ia berdin goaz»

tzen naiz orain dela mendeak gauzak egiteko zuten moduan. Orain joera da, baina hala egiten genuen ia-ia Erdi Aroan ere. 'Zero Waste' diseinatzeko era da, non oihal guztia erabiltzen den».

Kimonoa, galtzak, soineko luzea eta soineko laburragoa egin ditu. Ezberdin erabil daitezkeen jantziak dira (sokarekin lotzen direnak, neurri bakarrekoak), udakoak, erosoak. Liho eta kotoiarekin eginak. «Estatu espainiarreko enpresekin lan egin dut eta ekoizpena Gipuzkoan egin da».

Bilduma mugatua da, bakoitzeko 25 ale. Tailerrean eta Amarenak.com atarian eros daitezke, baita Donostiako Novecenta Grados eta Bilboko Galea 8360 dendetan ere.



Arantxa Urbe

Hezitzailea eta Hik Hasi-ko kidea

Zeren beldur!

Zein motatako formazioa eskatzen ote dute sailburu, senatari, ministro eta gisako ardurak betetzeko? Zer-nolako eskarmentua behar ote da? Nire gogoe-tara datoz Jean-Michel Blanquer Frantziako Hezkunde Nazionaleko ministroak senatuan esandakoak. Ministroak, murgiltze sistemaren ondorioz, frantsesaren ezagutza «arriskuan» dela iragarri du. Blanquerren aurretik, Jacqueline Gourault Frantziako Lurraldeen Kohesioaren eta Lurralde Kolektibitateen ministroak hitz egin zuen murgiltze ereduaren aurka, «Konstituzioaren kontrakoa» delako.

Hizkuntzen ikas/irakas-kuntzaren gaia, beste gaien gisan, hainbat ikuspegitik azter daiteke: antropologia, psikologia, kognizioa, neurologia, soziolinguistika, pedagogia, historia edota beste hainbeste diziplina eta zientzietatik, hain zuzen.

Zorionez, asko dira eremu horietan adituek eta ikerlariak egin dituzten ikerketak. Ez behar beste, akaso, baina bai nahikoak hizkuntzen arteko harremanak ezagutzeko, edota psikologikoki eta kognitiboki eleaniztasunak dituen aukerak eta abantailak azaltzeko.

Heziguneetan, hamarkadetan, ikusi, landu, ikertu eta esperimentatu dugunaren ondorioz, badakigu ikasleak ele-aniztunak izatera iritsiko baldin badira, gaur-gaurkoz, baliagarriak gertatu zaizkigun ereduak murgiltze eta mantentzea direla. Neska-mutilek hizkuntzak bereganatzea nahi badugu –zer esanik ez, euskararen kasuan–, etxetik hizkuntza ez dakartenak murgiltze ereduaren eta dakartenak mantentze ereduaren aritu beharko dute. Eredu horiek, soilik, bermatu baitute, artean, hizkuntzak menderatzea, menderatu dituzten mailan. Jakina, hizkuntzak bereganatzeaz ari garenean, ezagutzaz eta erabileraz ari gara. Eredu horietan aritu direnak gaztelania/frantsesa eredu elebakarrean aritu direnak adina edo hobeto ikasi dutela egiaztatu dugu.



Jean-Michel Blanquer, Frantziako Hezkuntza ministroa. Ludovic MARIN | AFP

Blanquer ministroak «eredu honen bertute pedagogikoak zalantzarriak dira» eta «haurrek eskualdeko hizkuntza hitz egiten dute soilik» esanez abiatuta, «pedagogikoki ainitz bada eztabaidatzeko. Haurra frantsesa errefusatzeko egoeran jartzen bada, kognitiboki ez da hain ona» ondorioztatzea iritsi da. Kognitiboki zenbateraino ote da onuragarria euskararen kontra jartzen bada...

Interesgarria izango litza-teke ministroa murgiltze eredua behin eta berriro zalantzan jartzera eraman duten argudio pedagogikoak ezagutzea. Nago, pertsonak «hizkuntza baten kontra jartzea» ikuspegi politikitik egindako azterketari dagokiola gehiago. Eta ikuspegi politikoa non oinarri daiteke polisaren

(herriaren) iritzian oinarritzen ez bada?

Biga Bai eskola elebidunetako gurasoen elkarteak esanda, hurrengo ikasturterako Irisarrin (Nafarroa Beherea) familien %84k eta Ainhoan (Lapurdi) %95ek eskatu dute euskarazko murgiltze eredua. Frantziako Gobernuak ezetz esan die. Seaskak 50 urte bete ditu aurtan. Dagoeneko milaka izango dira frantsesez, euskaraz zein atzerriko beste hizkuntza batean ari direnak arlo pertsonalean zein profesionalean.

Zerk beldurtu eta asalatu ote ditu horrenbestearaino frantses agintariak? Beude lasai, ikerketek eta eskarmentuak mantentze ereduaren ere frantsesaren ezagutza bermatzen dela erakutsi dute.

Euskaldunak gara hain lasai egon behar ez dugunak. Ape Musa Anter, nazionalitate turkiarra zuen idazle eta intelektual kurdua belarrira ari zait, berriro: «Nire hizkuntzak zure estatuaren zimenduak astintzen baditu, horrek esan nahi du zure estatua nirearen lurretan eraiki duzula».

Gurea bezalako hizkuntza txikien patua. Herri menderatu eta zapalduan bizi gara, herri gisa aurrera egingo badugu, ezin diogu gure errealitate horri ezikusiarena egin, ezta hezkuntzan ere! •

{ koaderno } Amaia Nausia Pimoulier

Agur Asiron, baina adiorik ez

Iruñekoa naiz jaiotzez, Iruñean hazi nintzen eta bertan eman ditut nire bizitzaren urte gehienak; Antsoainek bihotzaren zati bat lapurtu zidan arte, orain dela zortzi bat urte. Orduan joan nintzen herri horretara bizitzera. Hala eta guztiz ere, nire bihotzaren zati handi bat iruindar sentitzen da oraindik; Iruñean lan egiten dut eta lagunak eta familia bertan ditut. Beraz, Iruñean gertatzen denak sakonki pozten eta mintzen nau.

Astelehenean goibel esnatu nintzen, hauteskundeek utzitako emaitzak ikusita etorkizun lainotua aurreikusten nuelako. Haserre ere ikustean bizi izan naizen Arrosadia bezalako langile auzo batean, hamarkada luzez udaletxean nagusi izan diren agintariengatik utzita egon dena, eskuinak berriro ere irabazi duela.

AMETS BAT IRUÑEAN ETA NAFARROAN?

Pasa den igandeko emaitzak ikusita berriro ere imajinatu nezakeen Iruñea orain dela hamabost urte bezala, Barcinaren inperiopean. Gaztelu plazako zuhaitzak ez dituzte berriro moztuko, nafar guztien kutxa ez digute lapurtuko eta sanferminetako txosnak debekatuko, edo agian bai. Baina, era berean, gogoratu nuen orain dela lau urte ez genuela sinisten Iruñeko Udala alkate aurrerakoi eta abertzale baten esku egon zitekeenik ere. Agian lau urtez amets bat bizi izan dugu Iruñean, eta Nafarroan, eta oraingo egoera benetako *statu quo*-tik gertuago dago.

Azken hamar urteotan eskuin espainolistak Nafarroan izan duen beherakada ikusita, estatistikek ez

dute ametsaren teoria sostengatzen, baina ni ez naiz analista politikoa hori esateko, historiagilea baizik. Eta historiagile bezala jakin badakit erregimenen gainbeherak gizarte aldaketan ondorio direla, eta ez alderantziz.

«TXIRIPAK» ORAINDIK FUNTZIONATZEN DU

Ados, askori entzun diedan bezala, orain dela lau urte gertatutakoa “txiripa” bat izan zen. 15M mugimenduaren ondorioz emandako Podemosen gorakadari eta eskuinaren beherakadari esker emandako kasu magiko horietako bat, ehun urtetik behin zabaltzen den aukera-leiho horietako bat. Baina Nafarroan zerbait aldatu dela badakigu, itxaropena errealitate bihur daitekeela badakigulako. Ezinezkoa zena egia bihurtu delako eta Nafarroako herri askotan oraindik ere “txiripa” horrek funtzionatu egiten duelako. Ez dakit «*que vienen los vascos*» horrek luze funtzionatuko ote dien, batzuek adarrak ez ditugula ikusi dute-eta.

Orain itunen garaia datorkigu. Zentro-ekzker espainolistaren esku dago erabakia. Nafarroan, tamalez, badugu eskarmentua, “*agostazo*” pare bat bizi izan ditugu-eta. Ez dakit zer gertatuko den, agian pertsona “normalak” itzuliko dira udaletxera –Mayaren hitzetan– “anormalak” kanpo gelditzen garen bitartean.

Arrazoia eman beharko diogu Maya jaunari, izan ere, nafar anormal asko norma eta estruktura zaharretatik kanpo beste komunitate bat eraikitzen ari-tu gara urteetan zehar. Erresistentzia garaia da, beraz, anormalen garaia. •

Nafarroan zerbait aldatu dela badakigu, itxaropena errealitate bihur daitekeela badakigulako. Ezinezkoa zena egia bihurtu da eta Nafarroako herri askotan oraindik ere «txiripa» horrek funtzionatu egiten du

Bere lehen nobela argitaratu du Elene Lizarralde kazetariak. “El silencio de Clara Lyndon”

izeneko lanak oihartzun gutxi izan duen kirol gertaera baten inguruko istorioak jasotzen ditu. 1917tik 1980ra bitartean, ehunka emakume raketista profesionalak izan ziren, horietako asko euskaldunak. Hamahiru urtez raketistekin izandako elkarriketetatik eta sortutako laguntasunetik idatzi du liburua Lizarralde.

Kazetari donostiarrak telebistan osatu du batez ere ibilbide profesionala; aurkezle, gidogile eta zuzendari aritu da. Ezaguna da Euskal Telebistako lehen emisioa egin zuelako 1983an eta bertako lehen aurkezleen artean aritu zelako.

Madrilen bizi den arren, maiz etortzen da Donostiara, ahal duen bakoitzean. Bisita horietako batean azaldu dizkio GAUR8ri beren lehen lan literarioaren barrunbeak. «Izugarri eskertuta nago Euskal Herriko liburutegietan nire lanari egin dioten harrerarekin. Benetan gustatuko litzaidake euskarara itzultzeko aukera izatea», nabarmendu du.

Zure lehen nobela raketisten inguruan osatu duzu. Nola jakin zenuen emakume kiolarri horien berri?

Antena 3 telebistan lan egiten nuenean, egunero deitzen nion amari. Ni Madrilen bizi nintzen eta, bera, Donostian. Ordurako ama alarguna zen eta arratsaldero ateratzen zen lagunekin. Egun batean deitu eta arratsalde hartan norekin geratu ote zen galdetuta, «gaur raketisten taldearekin geratu naiz», erantzun zidan. Ikastolan ikasitakoa eta Euskal



GAUR8

Telebistan lan egindakoa izanik ere, inoiz ez nuen raketisten inguruan ezer entzun. Harrituta geratu nintzen. Amari galdetu nion raketisten inguruan eta zerbait kontatu zidan. Informazio hori nire disko gorrean gordeta geratu zen.

Behin Antena 3 utzi nuenean, idazten hasi nintzen, formatu desberdinetan. Halako batean raketistekin gogoratu eta gehiago jakiteko grina piztu zitzaidan. Gai horri buruz

ikertzen hastea erabaki nuen. Amaren bitartez raketista baten telefonoa lortu, haren bitartez Madrilgo beste batena... Horrela hasi nintzen bati eta besteari elkarriketak egiten.

Nola jaso zuten raketista izandakoek zure deia?

Bitxia izan zen. Guztiek mesfidantzaz hartu zuten nire deia. Bere bizitzan inork ez zien aurretik galdetu raketista bezala egindakoa bidez, inork ez zuen

interesik agertu eta harrituta geratu ziren. Gaur egun desberdina da, jende gehiago ari da gaia ikertzen, batez ere raketista haien senideak. Baina duela hamahiru urte haien ateak jotzen hasi nintzenean, hasieran mesfidantzaz hartu ninduten.

Gerora laguntasun bihurtu zena.

Bai, adiskidetasun handia sortu zen gure artean. Ordu asko eman ditut raketistekin hizke-

tan, beren gaztaroa gogoratzeko. Askotan galdetzen zidaten, «Elene, honekin zer egingo duzu?», eta nik erantzuten nien ez nekiela, eta, egia esan, hasiera batean ez nekien oso ondo zer egingo nuen informazio horrekin.

Saiatu nintzen egunkariaren bati istorioa saltzen, baina ez nuen inor konbentzitu. Hasieran nire seme Xabierrekin gidoi bat idazten hasi nintzen, film bat egiteko asmoarekin. Lagun bati ideia aipatu nionean, aholkatu zidan lehendabizi eleberria idazteko, eta, gero, etorri behar bazuen, etorriko zela pelikula.

Errealitate baten gainean marraztutako fikzioa da.

Bai. Jende askok galdetzen dit raketisten inguruko liburu bat ote den, kirolari buruzkoa. Ez da horrela, nobela erromantiko bat da, baina raketista izandako baten bizitza kontatzen du. Eta sentitzen dut nik raketistekin hartu nuen konpromisoa bete egin dudala, nire modura haien bizitza kontatu dudalako.

Pertsonaiak eta istorioa fikziozkoak dira, ez dira benetakoak. Baina pertsonaietan zein gertaeretan nik raketistei jaso-takoak daude; haien nortasuna, ausardia, borrokarako grina, aurrera egiteko gaitasuna, pasadizoak, gertaera batzuk... Baina liburuan ez dut jasotzen raketisten bizitza pertsonala. Kontatu zizkidaten gauza asko lagun bezala kontatu zizkidaten eta haien intimitatea errespetatu behar dut.

Bizi izan zuten giro politikoa eta soziala ondo islatzen da nobelan.

Bai, hori oso presente zeukaten. Kontuan izan behar dugu oso garai konplikatuak zela,

«Raketistekin hartutako konpromisoa bete dudala sentitzen dut; nire modura, haien bizitza kontatu dudalako»

emakumearentzat oso garai gogorra. Frankismoarekin, emakumearen eskubideak eta aukerak asko murriztu ziren; ezin zuten kontu korronte bat izan beren izenean, ez zeukaten pasaporterik, gaizki ikusiak zeuden soldata propioa zeukaten emakumeak, edo zertarako senarraren baimena behar zuten... Emakumeok horri guztiari aurre egin zioten eta hori goraipatzekoa da.

Egia da, hala ere, beharragatik egin zutela, ez militantziagatik. Gehienak familia xumetatik zetozen eta diruaren beharra zeukaten. Raketistentzat bide hori aukera ekonomiko bat zen, aurrera egin eta familiari laguntzeko bide bat, eta horregatik sartu ziren mundu horretan. Hori guztiek aitortzen zuten.

Raketistena goi mailako espektakulua zen.

1917an Anabitarte enpresa-gizonak pentsatu zuen emakumeak frontoian sartuz gero, negozio ona izan zitekeela. Horrela hasi zen frontoirik frontoi raketista bila. Eta emakume horiek bide bat ikusi zuten, aukera bat, eta asko saiatu ziren kirol arloan aukeratuak izateko. Madrilen, Bartzelonan, Kanarietan, Errioxan... frontoi mordoak eraiki zen bakarrik emakumeentzat.

Espektakulu bat zen; jantziak, apustuak... Raketistak kontziente ziren beraiena espektakulu bat zela, baina, era berean, oso garbi zeukaten kantxara irtetean serio egin behar zutela lana, maila ona eman behar zutela kirolari bezala, bestela ez zutelako aurrera egingo. Kirolariak ziren, goi mailako kirolariak.

Euskal Herria raketisten harrobi garrantzitsua izan zen.

Bai, hemen pilotan aritzeko tradizioa zegoen eta umetan neskato asko aritzen zen pilotan. Horrek izango du zerikusirik seguruenik.

Nik Estatu osoko raketistak ezagutu ditut, madrildarrak nagusiki, eta haiek kontatu zidaten kantxan jokatzeko euskarazko hitz eta esaldiak. Denek erabiltzen zituzten euskal esamolde horiek, baina, aldi berean, politikoki bakoitzak bere ideiak zituen. Raketisten artean denetarik zegoen; abertzaleak, anarkistak, frankistak...

Hori ere jasotzen du zure eleberriak. Aniztasun politikoa egon arren, raketisten artean lotura oso berezia dago.

Sekulako leialtasuna zegoen raketisten artean. Ni harrituta eta hunkituta geratu nintzen. Jatorri oso desberdinak izan arren, benetako lagunak ziren, elkar maite eta zaintzen zutenak. Leialtasun hori, gainera, oraindik bizirik dago beren artean. Urtero biltzen dira mahai baten bueltan. Eta guztiek garbi esaten dute, berriz jaioz gero, berriz raketista izan nahiko lukete.

Beren garaiko emakumeek baino askatasun handiagoa probatu zuten raketistek. Ez zen akaso aukera kontziente, baina horren jakitun baziren.

Bai, zalantzarik gabe. Normalean ezkondu eta utzi egiten zuten frontoia eta erabaki zaila izaten zen. Batzuek ezkondu eta gero ere jarraitzen zuten jokatzeko, baita ama izan eta gero ere. Baina horretarako gogor borrokatu behar zuten garaiko gizartearen arauen eta iritzien kontra. Moskardo jeneral frankistak, adibidez, esan zuen raketistak antzu ge-

ratuko zirela kirola egitearen ondorioz eta ezingo zutela haurrik izan. Tira, raketista askok ama izan eta gero ere jarraitu zuen kirol ibilbidea. Izan dira 35 urteko ibilbidea osatu dutenak ere.

Askotan raketistek “ezkontza onak” izaten zituztela esaten da; pilotari edo apustulari handiekin ezkontzen ziren askotan. Horietako askok porrot egiten zuten gero, apustueta galtzen zuten diru guztia, eta raketistak atera behar izaten zuten familia aurrera.

1943. urtean 1.432 pilotari profesional zeuden federatuak, horietatik 734 emakumeak. Datuak hain garrantzitsuak izanik, zergatik ez da kontatu raketisten historia?

Frankoren garaian emandako gertaera bat izan zen eta egia da jende askok ez zuela ondo ikusten. Pentsa, euskal raketisten senide askok nahiago zuten alaba neskame joan zela esatea, lotsagatik.

Raketista askok ez du bere istorioa kontatu ez zaielako aukerarik eman. Eta haien apaltasuna sekulakoa izan da. Harro zeuden raketista izan zirelako, baina, era berean, apaltasun handiarekin bizi zuten beren bizitzako kapitulu hori.


Liburuan ondo jasotzen denez, raketistak oso umeak ziren etxea utzi eta urrutiko frontoien batera joan behar izaten zutenean. Haustura hori ez zen samurra izaten.

Bai, horrela da. Euskal Herriatik Madrila edo Bartzelonara joaten zirenean, beste mundu batera egiten zuten salto. Baina hasieran ez ziren bakarrik joaten. Beti izaten zen inguruan amaren bat haiek zaintzera joaten zena eta pisuetan elkarrekin bizi ziren. Baina, hala ere,

ELENE LIZARRALDE

KAZETARIA ETA IDAZLEA

«El Silencio de Clara Lyndon» bere lehen nobelarekin, raketista izandako emakumeen bizipenak lehen lerrora ekarri ditu. Ez da kirolaren inguruko kontakizuna, bizitzari buruzkoa baizik, baina eliteko kirolari izandako emakumeen bizitzak izan dira bere abiapuntu eta inspirazio.



GAUR8

ez zen pauso erraza, erabat bizitza desberdina abiatzen baitzuten. Nik uste dut horri aurre egiten ziotela beren artean ghetto moduko bat osatu zutelako; frontoian bizi ziren, frontoiarentzat, beste gizonezko pilotariekin mugitzen ziren, elkarrekin bizi ziren... Iruditzen zait beren arteko loturak eta adiskidetasunak lagundu ziela mundu berri eta desberdin horri aurre egiten. Familia batetik beste familia batera pasako balira bezala. Gainontzean, ez zuten harreman handirik frontoitik kanpoko mundaurekin.

Zure liburuko pertsonaiak haustura sakona eta mingarria bizi du bere herriarekin. Antzekoa pasatu zaie raketistei?

Batzuei baietz esango nuke. Ezagutu nuen raketista bat, euskalduna, Mexikora joan eta puntako pilotaria izan zena. Irakasle bezala jardun zuen bertako frontoietan, Euskal Herrian familia utzita. Berak beti esaten zidan bizitza gogo-

rra izan zuela, maite zuen guztia urruti utzi behar izan zuelako.

Raketista askok kontatzen zidaten inoiz euskara entzuten zutenean kalean-edo, sekulako mina sentitzen zutela. Egiten zutenarekin zoriontsu bizi ziren arren, barru-barruan sentitzen zuten deserriak eta hausturak mina ematen zien.

Zer-nolako harrera izan du liburua?

Mota askotako lagunek irakurri dute nobela eta aipamen asko egin dizkirate. Baina bereziki gordeta daukat emakume errumaniar batek egindako hausnarketa. Esan zidan askotan egin zuela negar metroan liburua irakurtzen ari zela, bere ama eta bere herria gogoratzen. Finean, deserriarena emozio unibertsala da. Eta asko poztu nau nik nire emozio bezala bizitzakoak emozio unibertsal izatera pasatu direlako.

Miren Arrue pertsonaia oso sinesgarria da. Belaunaldi ja-



«Estatu osoko raketistak ezagutu ditut, madrildarrak nagusiki, eta haiek kontatu zidaten kantxan jokatzeko euskara erabiltzen zutela, euskarazko hitz eta esaldiak»

kineko euskal emakume askoren izaera suma daiteke.

Pentsa, nire amonaren izena da! Nire familiako emakume asko daude islatuak liburuan; amona, ama, izebak, alaba... Finean, niri kosta egingo litzaidake ezezagunak ditudan emozioak kontatzea eta inspirazioa, askotan, gertu topatu dut. Nobelako emakumeen nortasuna osatzea ez zait asko kostatu, inguruko emakumeei begira osatu dut.

Eta gizonezkoen kasuan, berdin. Ni 1961ean jaio nintzen, ikastolen lehenengotako belaunaldikoa naiz... eta horren guztiaren atzean gure aita eta bere erabakiak daude. Finean, non hasten da askatasuna? Norberaren bizitzan hartzen diren erabakietan, nire ustez. Gure aitak hori transmititu zigun.

Eta nobelako Simon pertsonaia ere oso gertukoa da niretzat. Nire semeak daukan gaixotasuna dauka pertsonaiak: zefalea kronikoa. Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, dagoen minik latzena da.

Semeak 31 urte ditu eta 13 urte zituenetik sufritzen ditu buruko minok, ia egunero. Gaixotasun hori dutenen bizitza oso gogorra da, ez dakite inoiz noiz etorriko zaien mina. Eta kanpotik ulertzea oso zaila da. Pertsona normala zara, alaia, eta segundo batetik besterik zure burua akabatu nahi duzu ez duzulako gehiago min hori jasaten.

Pertsonaiak gaitz hori izatea oso kontziente egin dudan hautua da, gizarteari erakutsi nahi niolako zein zaila den horrelako gaitz batekin bizitzea.

Filmaren aukera zabalik al dago?

Bai. Dagoeneko izan ditut horren inguruko pare bat elkarriketa eta proiektuak aurrera egiteko aukera badago. Argitaletxeak istorioa jaso eta onartu zuenean, adierazi zidan ilusio handiz egin zutela eta proiektu garrantzitsua zela. Gustatuko litzaidake filma egiterakoan ere bide bera ibiltzea; ilusioa pizten dion norbaitekin egitea filmaren proiektua, nik konbentzitu beharra izan gabe. Uste dut bide onean noala.

Eta? Hurrengo eleberria?

Bigarrenarekin ari naiz. Uste nuen ia amaieran nengoela eta, orain, ez dakit erdia ez ote dudan zaborretara botako [barreak]. Idazketa prozesua horrela da; idatzi, berridatzi eta berriz berridatzi. Bigarrena emakumeen ingurukoa izango da eta Donostian kokatuta egongo da. Niretzat garrantzitsua da liburu batek bide bat erakustea; istorio bat kontatzeaz gain, errealitate bat eza-gutzero emateko modua izatea. Raketisten kasuan, hori izan da asmoa eta norabide horretan jarraitu nahiko nuke.

*Begiratzeko modua aldatzeak
aldatu dezake mundua*





> Gradu amaierako lana, gazteleraz hobe?



NAIZ+

EHUko Medikuntzako ikasle baten gradu amaierako lana ohorezko matrikularako hautagai gisa hautatu dute. Datorren maiatzaren 31n berriz aurkeztu beharko du lana, beste tribunal batean aitzinean.



Hala jakinarazi diote unibertsitatean, eta lana egin duen hizkuntzan, euskaraz, aurkezteko aukera eman badiote ere, erabiliko dituen diapositibak gazteleraz edo ingelesez egiteko galdegin diote. «Begirune

keinu bat izango litzateke», diotsate gaztelera hutsean idatzitako gutunean.

Ikasleak gogor salatu du EHUtik jasotako eskaera bere Facebookeko orrian, nahiz eta ondoren sare sozialetik ezabatu. Jasotako bi gutunak gaztelera hutsean idatzita daudela deitoratu, eta «Medikuntza euskaraz ikas daitekeen unibertsitate bakarrean, Euskal Herrian, gure ama hizkuntzak horrelako zapalkuntza jasan beharra lotsagarria eta negargarria» iruditzen zaiola dio.

«Ez gara zuen pozoidun 'aholkuekin' kikilduko», gehitu du, eta bere lana euskara hutsean defendatuko duela iragarri du. «Hala idatzi, hala sentitu eta hala nahi dugulako», nabarmendu du Facebooken oihartzuna izan duen idatzian.

Ikasle hau ez da salatutakoa bizi behar izan duen ikasle bakarra. Horren erakusle, EHUko Medikuntzako beste ikasle batzuk NAIZekin harremanetan jarri dira, antzeko «gomendioak» jaso dituztela jakinarazi eta sare sozialetan zebilen salaketarekin bat egiteko.




> Espainiar Polizia, hauteslekuetan xingola horien aurka

Burlatako bizilagun batek igandean bertan NAIZi jakinarazi zionez, Ermita Berri hauteslekuan zeuden espainiar poliziek paparrean zeramatzan ikurrina eta xingola horia kenarazi zizkioten, bestela ez baitzioten bere boto eskubidea gauzatzen utziko.

Bartzelonan, ERCko ahaldun gazte batek antzeko egoera bi-



zi izan zuen, Voxeko ahaldun batek kataluniar preso politikoaren askatasunaren aldeko elastiko bat eramateagatik errieta egin zionean. Elastikoa kendu eta bularretako hutsean geratu zen neska. Ondoren, atzekoz aurrera jantzi zuen elastikoa gazteak. Neskaren erantzunak txalo ugari jaso du sarean.



> Kartzelara itzuli aurretik, ardiek ikusi egin nahi zuten

Joan den larunbatean, Aitor Esnaola euskal preso politikoa Le gorretako baserrira eraman zuten aita ikustera, hura gaixorik baitago. Sortuk sare sozialetan partekatu duen bideoan ikusten den bezala, bisitaren ondoren bere senideak agurtu zituen besarkadaz eta musuz.

Esnaola berriro kartzelara eramateko Ertzaintzaren autoak abiatu zirenean, segizioak errepidea alderik alde betetzen



zuen artalde batekin topo egin zuen. Ardiak Esnaolarenak berarenak ziren, beste artzain bategen larreratuak. Ertzaintzak sirenak piztu zituen aurrera egiteko eta, presoaren familiak salatu duenez, identifikazioak egin zituen.

Familiak, halaber, argi utzi du ardiak ez zirela presoaren lekualdatzea oztopatzeko errepidera atera, egin zutena ohiko ibilbidea baitute.

> CAFeko langileak amiantoak hildako laguna agurtzen

CAFen Irungo fabrikako langile bat amiantoarekiko esposizioagatik hil zen joan den astean. Haren lankideek beren errespetu eta elkartasuna erakutsi zuten ekitaldi hunkigarri batekin. Langileek bi orduko lanuzte bat egin zuten, eta denbora tarte horretan hil-autoaren ibilbidean zehar jarri ziren, hildako langileari agur esateko.

Aitor Garciafalcesek Facebooken partekatu zuen ekitaldia, eta gogorarazi zuen Irungo fa-



brika horretan material horren eraginean jartzeagatik hil den hirugarren laguna dela dagoeneko. Kopuru hori 37raino igotzen da konpainia horrek Beasainen duen fabrika, eta 49 Zaragozakoan.

Komunikatu batean, enpresa-batzordeak CAFeko Zuzendaritzari bere erantzukizuna onartu eta gaiok auzitegitara ez eramateko eskatu dio, lagun horien eta haien senitatekoen sufrimendua luzatzea saihesteko.



> «Nor izan nahi zenuke?»

Adecco aldi baterako lan konpainiak sareak hunkitu ditu iragarki batekin. Daukagunak benetan asetzen gaituen pentsatu gabe berdin jarraitzen dugula planteatzen du bideo batean. Zenbait langile agertzen dira bideoan, Silvia Mato enpresaburuarekin solasean. Denek aitortzen dute ez daudela oso pozik beren lanetan, baina ez dute al-



datzeko asmorik, beldurrez, inertziaz edo konbentzioz.

Silvia Matok aldatzeko adorea ematen die, bere esperientzia jakinaraziz. Emakume transgenero horrek duela hamar urte hartu zuen bere bizitzako erabakirik ausartena, munduaren aurrera bere baitan sentitzen zen bezalaxe agertu zenean.



Aurpegia margotu eta ileorde berdea eta sudur gorria jantzita, Joanes Echeveste gazte saratarra Pontx pailazoa bilakatzen da. Guillaume FAUVEAU

infraganti PONTX PAILAZOA

Pontx pailazoak 14 urte besterik ez ditu. Agertokietatik at Joanes Echeveste deitzen da eta, azken urteetan ezagunen artean eta ikastoletako festetan ikuskizunak eskaini ondoren, Herri Urratsen salto handia egin zuen saratarrak Euskal Herri mailara. Pirritx, Porrotx eta Marimotots bidelagun izan ditu, eta haien azken diskoan entzungo dugu.

Etxetik kanpoko lehen emanaldia 6 urterekin egin zuen, Sarako ikastolaren festan, 200 lagun en aitzinean. Betidanik «antzerki mundua, kantua eta dantza maitatu» dituelako bilakatu zen pailazo Joanes Echeveste.

Etengabe ikasiz eta gaitasunak garatuz joan da koskortu ahala, eta egun toki ugaritatik jasotzen ditu deiak bere ikuskizuna aurkezteko. “Ze saltsa!” lan berria Azkainen aurkeztuko du ekainaren gan herriko ikastolak antolatu duen jaian.

“Mendian” zuen izena aurreko antzezlanak eta azken ema-

naldia Herri Urratsekoa izan zen, maiatzaren 12an. «Ipar Euskal Herriko ikastolen festa handian izateagatik biziki urduri nintzen, baina biziki ongi pasa zen. Giro ederra zen, jendeak egiazki ongi hartu zuen, eta parte hartu zuen», gogoratu du. Aintziraren ondoan zegoen agertokiaren inguruan dozenak haur zutik jarri zituen, eta berarekin kantari eta txaloka aritu ziren. Bukaeran, arrakastaren seinale, haurrak, gurasoek lagunduta, berarengana hurbildu ziren argazkiak elkarrekin ateratzeko.

Senperekoa une garrantzitsua izan zen Pontx pailazoren ibilbidean, baina ez zen ez lehena ez azkena izan. Hemen-dik goiti horretan segitzeko asmoa du Joanes Echevestek, eta Pontx bere izaeraren parte dela ere esan daiteke, pailazoren jatorriari buruz erranda-

koan oinarrituta: «Bakarrik atera da. Betidanik entzun izan dut pailazo guztiengandik eta aktoreengandik denok dugula pailazo bat gugan, eta hortik atera da. Nik, behar bada, banuen Pontx barnean».

“Atera” bada ere, gibelean lana ere izan da. 6 urterekin jendaurrean abiatu ibilbideari jo eta ke segitu dio Joanesek. 6 eta 9 urte bitartean, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizun zatiak egin zituen jendaurrean, adibidez Zugarramurdiko festetan edo ikastolakoetan, «eta nola ez, etxean, nire kabuz, nire logelan, denbora pasa».

2016an sortu zuen Pontx, eta hor hasi zen Joanes ipuinak, testuak idazten. Lan horretan gustuko dituen hiru pailazoen lanen egitura atxikitzen badu ere, «nire modura egiten saiatzen naiz».

Hasierak pailazo ezagunen obren zatiak antzeztzen zituen. Ondoren, bera sortzen hasi zen eta saio bakoitzean erabat aldatzen zituen dekorazioa, testuak, kantuak. Garaian aski erraza zen, baina gero kolegiok eskatzen duen lanaren eta eragiten duen denbora faltaren ondorioz ideiarik gabe gelditzen hasi zen: «Azkenean gelditzen zara beti bueltaka. Ideiak hartzen nituen bizkor-bizkor, beraz, azkenean beti ideia berdinak ziren, eta kantuak eta mezuak ere bai».


Horren ondoren etorri zen “Mendian”: «Sortu nuen zinez nire egitura, nire istorioa, nire arazoak, soilik hartu nituen Pirritx eta Porrotxen kantuak. Aldiz, lehen, hilabetero prestatzen nuelarik, benetan ziren beraienen oso antzekoak».

KATXIPORRETA

Bidelagun izan ditu Pirritx, Porrotx eta Marimotots urteor-

tan zehar, hasieran beraien ideien bitartez, eta gero beraiekin zuzeneko harremanean. 2013an, Zeraingo Irrien Lagunak aterpetxera joan zen, eta bertan ezagutu zuen Porrotx. Gaztetxoei gomita luzatu zien ikusizunuen aurretik pailazoen-gana hurbiltzeko. Joanesek gonbidapena onartu eta taldea ezagutzera joan zen. «Saioak hasi aitzin joaten nintzen, eta kontatu nien nola ibiltzen nintzen. 2015ean erran zidaten beraiekin igotzeko agertokira, azken dantza egitera. Gerroztik beraiekin naiz harremanetan; ikusgarrien denboran beraiekin egoten naiz atzealdean eta azken dantzak egiten ditut».

Harremana sortu zenetik, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen lan egiteko era ezagutzen joan da. Gomendioak ere ematen dizkiote: «Interesgarria da, haiekin hasi nintzen 11-12 urterekin, eta orain 14 ditut. Ikasi dut beraiekin giblean badela lana, prestakuntza handia. Gerorako balio didaten gauza anitz ikasten ditut». Eman dioten sostengua ikusita, esker oneko hitzak besterik ez ditu Joanesek. «Betidanik nire galdera eta kezkei erantzun diete, beti hor izan dira. Baionan eta Hendaian ikuskizunak egin zituztenean,



Senpereko lakuaren inguruan, Herri Urratsen, Pontxek dozenaka haurren aitzinean «Mendian» ikuskizuna antzeztu zuen azkeneko aldiz. Guillaume FAUVEAU

mikrofonotik erran zuten Herri Urratsen izango nintzela. Niretzat onuragarria izan den publizitatea egin dute».

Pailazo ezagunen proiektu berrian ere hartuko du parte. Grabatzen ari diren CDan, «nire ahotsa eman dut, ipuintxo bat kontatzen». Aukeron atzean, bera laguntzeko nahia dagoela uste du: «Oso pertsona irekiak dira, eta laguntzen dute ahal duten modura». Elkarrekin lan egiten dutela

«Pontx bakarrik atera da. Betidanik entzun izan dut pailazo guztiengandik eta aktoreengandik denok dugula pailazo bat gudan. Nik, beharbada, banuen Pontx barnean»

Pirritx, Porrotx eta Marimotots bidelagun izan ditu Joanesek: dituen kezkak erantzun dituzte, laguntza eman diote... Porrotx Joanesekin egon zen ikaskideen aurrean Pontx aurkeztu zuenean

eta jende anitz lagundu azaldu du. Hori bai, bere ageriko berezitasuna ere aipatu du: «Ni naiz nire adineko bakarra».

JOANES ETA PAILAZOA

Herri Urratsekoa Euskal Herriaren eta bere kolegioko lagunen aitzinean Pontx aurkezteko momentua izan zen Joanes Echevesterentzat. Klasekideek, aste batzuk lehenago izan zuten pailazoaren joan-etorrien berri, ikastetxean egin zuen aurkezpenean: «Nire lagunak orain arte ez zekiten. Senpereko festa aitzin Porrotx etorri zen kolegiara. Proposatutako zidan goiz batez etorri eta biok saio txiki bat eskaintzea nire mailako kideen aurrean. Egin nuen eta biziki onuragarria izan da niretzat». Herri Urratsera lasaiago joan zen horrela: «Egia da ez dela ohikoa pailazoarena egitea 14 urterekin, eta ez nuen

arazorik izan nahi. Ongi ikusia izan nahi nuen eta anitz lagundu nau Porrotxek».

Bada, elkarrekin ikuskizun txiki bat egin zuten ikaskideen aitzinean Porrotxek eta Pontxek, eta, ondoren, sudur gorria kenduta, Porrotxek bere ibilbidea kontatu zuen. Gero hitza eman zion Joanesi: «Nire gogoia erran nuen, zergatik nintzen pailazoa, zer sentitzen nuen, zer maite nuen... Bost minutuz bukatu nuen, ez baitut ibilbide biziki luzea. Jendeak onartu zuen, eta bukatzeko bi esketx eta bi dantza egin genituen. Pozik atera nintzen».

Geroztik dena positiboki bizi du: «Galdera asko egiten dizkirate, interes handia izan da, Herri Urratsera hurbildu dira... Laster emanen ditudan beste emanaldietara ere etorriko direla erran didate».

Olatz Arbelaitz eta Elena Lazkano

Donostiako UPV/EHUko Informatika Fakultateko irakasle eta ikertzaileak

Robot-lagunak genero ikuspegitik

osasuna / hezkuntza / teknologia

3 BEGIRADA:

Beso-robot industrialek aspaldi dute presentzia lantoki eta fabrikazio kateetan. Etxeetan ere, gero eta arruntagoak dira modu autonomoan aritzen diren xurgagailu robotikoak. Eta berriei erreparatzen badiogu, gertu daude gurekin bizitza konpartituko duten robot sozialak edo robot-lagunak. Gurekin elkarreragiten duten edo gure erara portatzen diren izaki sintetiko hauek garatzea aspaldiko erronka da, zientzia fikzioa da horren ispilu. Baina zer eragin izango du robot sozialen iraultzak genero joeran? Edo, badu genero joerak eraginik robot hauen diseinuan? Robotak adimen artifizialaz hornitzen dira eta arrats ezaguna da adimen artifiziala sortzearen oinarrian jendartetik jasotako datuak eta pertsonak egonik, genero desbiderapenak desagerrarazi baino, hedatzen lagundu duela. Robotetan akats berberak errepikatze probabilitatea handia da, beraz.

Robot-lagunek, ikasteko gaitasuna eta ahotsaren bidezko komunikazioa erakustez gain, gorputz bat ere behar dute. Robot sozialak izanik, pertsonok dugun portaeraren antzekoa izatea espero dugu printzipioz, baina antropomorfismo maila egokia bilatu behar da. Izan ere, haran kezagarria (*uncanny valley*) izeneko hipotesiaren arabera, erreplika antropomorfoen itxura eta portaera gizaki erreal batena gehiegi hurbiltzeak, gizakien artean gaitzespena eragiten du.

Poliki-poliki plazaratzen ari diren robot-lagunak gehienbat zaintza eta zerbitzari funtzioetarako eraikitzen dira. Egungo jendartean rol horiek oraindik emakumezkoen ardura izan ohi dira eta horrek badu eragina roboten diseinuan! Robot mardul eta indartsuak gizon generoarekin lotzeko “ohitura” dago, horren adibide da Boston Dynamics enpresaren Atlas robota. Garbiketa, etxeko lanak edo

zerbitzari lanak arintzeko diseinatzen diren robotak, aldiz, emakume kutsuarekin irudikatu genituen robotekin amesten genuenean eta emakume itxurakoak dira gaur egun ere.

Ahotsari erreparatzen badiogu ere, robot-lagun horiek emakume ahotsa dute, ahots zerbitzariarekin gertatu ohi den moduan. Aski ezagunak diren Siri, Cortana eta Alexak lehenetsitako ahotsa emakumezkoa dute, nahiz eta galdetuz gero onartzen duten ez direla ez emakume ez gizonezko. Beraz, argi dago robotetan ere estereotipoek bere horretan dirautela.


Baina, beharrezkoa da robotek generoa adierazten duen ezaugarriak edukitzea? Zergatik esleitu generoa robotei? Egia da betebeharraren arabera robotari generoa esleitzeak gertutasun handiagoa sentiarazten digula eta horrek elkarrekintza errazten digula? Badira zenbait ikerketa diotenak zaintzarako robotek konfiantza maila handiagoa transmititzen dutela emakume ahotsa izanez gero, baina ez dugu uste robotikaren garapenak genero joera horretan sakondu beharko lukeenik.

Robot-lagunek espresioak adierazteko ezaugarriak behar dituzte, baina

horretarako generoarekin loturarik ez dutenak nahikoa izan daitezke. Pixarren “Luxo” film laburra da horren adibide. Flexo soil batek mugimendu egokien bidez nortasuna eta egoera emozionala adierazten ditu genero ezaugarririk gabe eta aurpegirik gabe. Roboten artean ere badira adibide egokiak. Adibidez, SoftBank-en Pepper humanoideak aurpegia badu baina generoarekin lotutako berezitasunik ez; berdina gertatzen da funtzio sozialerako diseinatuta dauden eta zakur, katu eta itsas otso itxura duten beste zenbait robotekin.

Morfologiaz harago, egunerokotasunean laguntzeko eta gure bizi-kalitatea hobetzeko egingo baldin baditugu, nola eragingo dio roboten iraultza horrek emakumeen lan baldintzei? Zerbitzari lanetan, nekazaritzan, etxetan robotak egongo badira, horrek emakumeen bizitza kalitatea areagotzeko balioko du edo berriro ere emakumeak kaltetuta aterako gara prozesu horretan?

Horrelakorik gerta ez dadin dudarik gabe emakumeok parte hartu behar dugu robotikaren garapenean eta, oro har, teknologiaren garapenean. Zoritxarrez, hori urrun dago oraindik! •



Iraganean bezala, gaur egun ere emakume irudikatzen ditugu etxeko lanak egiteko robotak. GAUR8

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



Enrique GUINEA. GASTEIZKO UDAL ARTXIBOA

MATEO MUGICA, ALTXAMENDU FRANKISTA TXALOTU ZUEN IDIAZABALDARRA

Mateo Mugica 1870. urtean jaio zen Idiazabalen. 1924. urtean Iruñeko apezpiku izendatu zuten eta, lau urte geroago, Gasteizko apezpiku. Gasteizko apezpikutzak, gainera, Gipuzkoako eta Bizkaiko elizbarrutiak hartzen zituen bere baitan. Garai horretakoa da Enrique Guineak egindako argazkia. Bertan, Mugica bera ageri da, seminaristaz inguratuta.

Errepublikaren kontrakoa zen eta Espainiatik kanporatua izan zen 1931. urtean. 1933an itzultzeko baimena jaso zuen. 1936an altxamendu frankista babestu zuen Mateo Mugicak. Radio Vitorian aldarrikatu zuenez, «ezin duzue inolaz ere, ez zuzenean ez zeharka, armada espainolaren eta bere laguntzaileen hausturan parte hartu; erreketek, falangistak eta herriko miliziak, benetako bandera espainola astinduz -bi kolorekoa-, modu heroikoan ari dira erlijioaren eta aberriaren alde borrokan». Era berean, baina, apezpiku espainolek altxamendu frankistaren alde sinatutako eskutitz kolektiboa ez zuen sinatu Mugicak. Hartara, Goma kardinalari eskutitz bat bidali zion Italiatik, ez sinatzeko bere arrazoiak azalduz. «Zortzi hilabete baino gehiago daramatzat nire elizbarrutitik urrundua. Fisikoki nire tokian nagoenean -Gasteizko apezpikutza-, dokumentu hori sinatzeko modua izan dezaket. Desio dut eta Jaunari eskatzen diot Franco Jeneralisimoaren garaipena gorri guztien gainetik», idatzi zuen.

Altxamendu frankista txalotu arren, Estatu espainoletik kanporatua izan zen disidentziagatik. Kanbon bizi izan zen, harik eta 1947an bueltatzeko baimena eman zioten arte. Zarrautzen bizi izan zen 1968. urtean hil zen arte.

7^{haizetara}

BIDAIA ALDIZKARIA

DATORREN OSTIRALEAN ZURE KIOSKOAN SALGAI



MENORCA

Urdintasunaren distira

Turistaz jositako Balearretan, ia ukitu gabeko txoko zoragarriekin topo egiteak miraria dirudi.
Camí des Cavalls ibilbidean kalaz kala ibili gara urdintasunaren distiraren atzetik.

Eta gainera: Lau trekking ikusgarri Georgian • Maurizio uhartearen bihotz kreolea •
Nepal, hondamenditik altxatzen • Lizarrako zumakearen ibilbidea...

HARPIDETU • 11 ALE 15€ URTEAN
WWW.ZAZPIHAIZETARA.COM

1,5€
7^{haizetara}

ZURE BIDAIA ALDIZKARIA
EUSKARA HUTSEAN

